[a]aztiker
soziologia ikergunea

OIARTZUNGO GAZTEAK ETA ETXEBIZITZA: EGOERA, AUKERAK, JARRERAK ETA DISKURTSOAK, 2016



SARRERA

Txosten honetan aurkezten dena Oiartzungo Udalaren eskariz Aztiker ikerguneak egindako honako ikerketa da: Oiartzungo gazteak eta etxebizitza; egoera, aukerak, jarrerak eta diskurtsoak.

2016.urteko urria eta abendua bitarte burututako ikerketa da eta hiru atal nagusik osatzen dute, ikerketaren hiru faseak banatuz: azterlan kualitatiboa, azterlan kuantitatiboa eta herritarrekin egindako parte-hartzea edo jardunaldiena.

AURKIBIDEA

SARRERA ---------- 1

0. ONDORIO NAGUSIAK ---------- 3

1. IKERKETA KUALITATIBOA ---------- 8
- METODOLOGIA ---------- 9
- JENDARTE ZAHARTUENEN ARTEAN, GAZTEA ---------- 10
- ETXEBIZITZEN GEHIEGIZKO PARKEA ETA EMANTZIPAZIORAKO ZAILTASUNAK ---------- 12
- JOERA: EREDU ALDAKETARA BIDEAN ---------- 14
- OHIKO ETXEBIZITZA PROIEKTUA NAGUSI, BAINA ALTERNATIBAK AREAGOTZEN ---------- 15
- OIARTZUNEN BIZI NAHIA ---------- 16
- ETXEBIZITZA ARAZO BAT DA GAZTEENTZAT, ALOKATZEKO ETA EROSTEKO ZAILTASUNENGATIK ---------- 17
- ETXEBIZITZA EREDU DESBERDINEN BALORAZIOA: FUNTZIONATUKO LUKETE OIARTZUNEN? ---------- 18
- INFORMAZIOA HELTZEAREN ETA HELARAZTEAREN GARRANTZIA ---------- 23
- AURRERA BEGIRAKO PUNTUAK ---------- 24

2. IKERKETA KUANTITATIBOA ---------- 25
- 2.1. METODOLOGIA ---------- 26
- 2.2. DATU NAGUSIAK ---------- 27
  - 2.2.1. INKESTATUEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK ETA LAGINAREN ONTASUNA ---------- 27
  - 2.2.2. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK ETA GURASOEN ETXEAN BIZI DIRENAK: EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK ---------- 29
  - 2.2.3. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN EGOERA ---------- 32
  - 2.2.4. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK: ETXEBIZITZA ALDATZEKO BEHARRA DUTENAK ---------- 36
  - 2.2.5. EMANTZIPATU BEHARREAN DAUDEN GAZTEAK: ETXEBIZITZA BATEN BEHARRA DUTENAK ---------- 43
  - 2.2.6. OIARTZUNGO GAZTEAK ETA ETXEBIZITZAREN INGURUKO IRITZI ETA JARRERAK ---------- 50
  - 2.2.7. PROPOSAMEN GEHIAGO ---------- 54
  - 2.2.8. APORTAZIOAK ---------- 55

3. JARDUNALDIAK (2016-XII-16) ---------- 56
- 3.1. SARRERA ---------- 58
- 3.2. IKERKETAREN EMAITZAK ---------- 59
  - 3.2.1. BERTARATUTAKOEN EKARPENAK ETA HAUSNARKETAK ---------- 60
- 3.3. EREDU DESBERDINAK ---------- 61
  - 3.3.1. OIARTZUN, GURUTZEKO ETXEBIZITZA KOOPERATIBA ---------- 62
  - 3.3.2. ERREZIL, AUZOETXEA ---------- 63
  - 3.3.3. DEVENTER, BELAUNALDI ARTEKO EGOITZA ---------- 64
  - 3.3.4. EREDUEN INGURUKO HAUSNARKETAK ---------- 65
- 3.4. ETXEBIZITZA BULEGOA ---------- 67
- 3.5. OIARTZUNERAKO AUKERAK ---------- 68
- 3.6. ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ---------- 70
- 3.7. JARDUNALDIEN AMAIERA ---------- 71

ERANSKINA:GALDE SORTA ---------- 72

0. ONDORIO NAGUSIAK

Oiartzunen guztira 2.038 herritar gazte bizi dira, 16 eta 35 urte bitartekoak. Hau izan da ikerketan zehar kontutan hartu den adin-tartea. Udal erroldaren arabera, gazteen ia heren bat (% 32) bizi da emantzipatuta eta bi heren gurasoen etxean. Gure inkestak adierazi duena zera da ordea, 2.038 gazte horietatik ia % 40 emantzipatuta bizi direla eta gainerako % 60 gurasoen etxean. Adin-tartea da diferentzia handiena markatzen duen aldagaia kasu honetan. 16-23 urte artekoen artean % 2 dago independizatuta, 24-29 urte artekoen artean % 37 eta 30-35 urte artekoen artean % 87.

Hartutako laginak emandako emaitzak Oiartzungo gazte guztietara estrapolatuta, emantzipatuta bizi dira 811 gazte oiartzuar. Hauetatik % 5,8k gaur egun bizi den etxebizitza aldatzeko beharra duela adierazi du eta dagoeneko etxe berriaren bila ari dira. Guztira 47 oiartzuarrek osatuko lukete multzo hau. Bestetik, gurasoen etxean bizi dira 1.227 gazte eta hauen artean % 11,1 independizatzeko etxebizitzaren bila ari da, 135 oiartzuar zehazki.

Datu hauek ikusita, guztira 182 gazte oiartzuar etxebizitza bila dabilela ondorioztatzen da, beti ere, gutxi gora-beherako datu bat dela kontutan hartuta. Gazte hauetako asko edo gehienak bikoteka edo taldean bizitzera joango lirateke eta kalkulatzen da 100-110 etxebizitza ingururekin asebeteko litzakela etxebizitza eskaera hau (25-30 etxebizitza jada independizatuta egonda aldaketa behar dutenen artean eta 75-80 emantzipatu nahi dutenen artean). Azken banaketa hau egitea garrantzitsua da, batez ere, kontutan hartzen baldin badugu jada emantzipatuta daudenak etxebizitzaz aldatuko badira, beren gaur egungo etxebizitzak oraindik emantzipatu gabe daudenen eskaria asetzeko balio baitezakete.

ETXEBIZITZA BILA DABILTZANEN PERFILAK

Oso perfil ezberdinak dituzte gaur egun etxebizitza bila dabiltzan oiartzuarrekin osatu ditugun bi multzoek, hau da, etxebizitza aldatu nahi/behar duten emantzipatutako gazteek eta beren lehen etxebizitzaren bila dabiltzan gazte ez-emantzipatuek.

Aipatu bezala, emantzipatutako gazteen artean % 5,8 etxebizitza aldatzeko beharrean daude, 47 herritar inguru. Etxebizitza aldatzeko beharra dutela adierazi dutenen gehiengoa 30 urte ingurukoa da, Elizalde-Erdialdean edo Altzibarren bizi da eta jatorriz Oiartzundik kanpokoa da batez ere, euskaraz hala moduz moldatzen dena. Itxuraz behintzat, ahalmen ekonomiko txikiagoa du batez bestekoarekin alderatuta eta horietatik asko alokairuan bizi dira eta horrela jarraitzea pentsatzen ari da. Orokorrean, etxean kide asko diren familiak dira, kasu batzuetan etxea txiki geratu zaiela diotenak eta denek bilatzen dute hiru edo lau logelako etxebizitza bat, gutxienez 75 m2-koa.

Bestetik, gurasoen etxean bizi direnen % 11,1 emantzipatzeko beharrean dago, 135 oiartzuar inguru. Etxebizitza aldatu behar dutenekin alderatuta, erabat perfil ezberdina da emantzipatu nahi duten hauena. Guztiak 24 urte edo gehiagokoak dira eta batez ere 30 urtez azpikoak. Zaharragoak direnak jada emantzipazioaren bidea egin dute eta gazteagoak (23 urte edo gutxiago dutenak) ez dute emantzipatzeko behar hori adierazi. Bestalde, etxe bila dabilen hiru laurdena herrian bertan jaiotakoa da, euskaraz ondo moldatzen dena eta ikasketak amaitu berri dituena eta lan munduan sartzen ari dena.

ALOKAIRUAN VS. EROSITA

Oiartzungo gazteen, eta orokorrean Hego Euskal Herriko gazteen, gehiengoa gurasoen etxean bizi da eta joera orokorra emantzipatzeko *'momentu ona'* itxarotea da, hau da, lan egoera hobea edo aukera hobeak, gaur egungo egoera hobetuko delakoaren esperantza hedatua baitago. Emantzipazio ezaren karga sare familiarrak eraman ohi du eta askotan gurasoak beraiek dira balizko *'momentu ona'* itxarotea gomendatzen dutenak, bide alternatibo bat jorratzea albo batera utziz.

Orokorrean, gazte oiartzuar gehienen nahia da etxebizitza bat erosiz emantzipatzea. Joerak aldatzen ari dira ordea, kasu askotan ez hala nahi delako, baizik eta, egoerak behartzen duelako. Kasu askotan ezintasun ekonomikoak behartuta, tarteko pausu bat eman ohi da bide horretan. Lehenik alokairuan bizi eta ondoren, aukera dagoenean, etxebizitza erosi. Inkestako datuek adierazten duten moduan, gaur egungo gazte oiartzuar emantzipatuen erdia baino gehiago alokairuan emantzipatu zen eta gerora laurdenak jarraitzen du egoera horretan. Are gehiago, orain gurasoen etxean bizi diren eta emantzipatu nahian dabiltzanen artean, ia bi herena prest dago alokairuan bizitzera joateko. Joera nagusia, beraz, horixe da, lehen pausua alokairuan emantzipatzea eta bigarrena etxebizitza erostea.

Orain gertatzen ari den fenomeno bat da lehen pausu 'probisional' edo 'transitorio' hori luzatzen doala kasu batzuetan, geroz eta gehiagotan, eta alokairuaren aukera denbora luzeagorako alternatiba bilakatzen dela. Egoera ekonomikoa dela, lanpostu ez-finko edo/eta prekarioak direla, bikote harreman aldakorragoak direla, etab…erosketaren erabakia alde batera uzten da momentuz behintzat.

Erabaki bat edo bestea hartzerako orduan, azpian dauden diskurtsoak antzekoak dira gazte gehienen artean. Etxebizitza erostea erabaki dutenen artean, alokairuaren eta hipotekaren prezioaren antzekotasuna aipatzen da batik bat, biak prezio paretsuan egonda nahiago dela erostea, hala gerora etxebizitzaren jabea izango baita. Alokairuaren aldeko erabakia hartu dutenen artean, aldiz, badaude egoera ekonomikoak erabaki hori hartzera bultza dituenak (etxebizitza bat erosteko adina diru ez izatea da arrazoi nagusia) eta badaude bestelako arrazoiak ere aipatzen dituztenak, esaterako, hipoteka bat hartu nahi ez izatea edota alokairuak flexibilitate edo mugikortasun gehiago eskaintzen duelako.

ETXEBIZITZA HUTSAK: ESKAERA ASETZEKO AUKERA

Oiartzungo gazteen erdiak baino gehiagok (% 54,5) adierazi duenaren arabera, etxebizitzarena herriko arazo larriena edo larrienetakoa da. Oiartzunen 4.177 etxebizitza inguru kontabilizatzen dira eta horietatik 350 bat (parke osoaren % 9) hutsik daudela dio berriki egindako ikerketa batek. Horietako batzuk egoera kaxkarrean omen daude baino asko eta asko alokatu edo saltzeko aukeran.

Gazteen artean arazo bezala ikusten da herrian etxe hutsak egotea eta administrazioaren aldetik soluzio bat eskatzen da. Batetik, gazteentzat alokairurako laguntza jartzea proposatzen da eta, bestetik, etxeen jabeei laguntzak / erraztasunak eskaintzea etxebizitza merkatura ateratzeko. Etxe jabeak presionatzea ere gazte askoren eskaera izan da, isun edo zerga bidez.

Gorago azpimarratu den moduan, 100-110 etxebizitzarekin gaur egungo Oiartzungo gazteen eskaria asetzea lortuko litzateke. Bide horretan oso kontutan hartu beharreko soluzio bat da jada eraikita dauden etxebizitza hutsak merkaturatzeko ekimenak martxan jartzea.

OIARTZUNEN BIZI NAHIA

Oro har, Oiartzungo gazteek Oiartzunen bizitzeko nahia dutela adierazi da. Auzoen artean ez dago lehentasunezko desberdintasunik. Kaxkoa edo zerbitzu gehiago dituzten auzoak erosoagoak direla azpimarratu da hala ere, Altzibar adibidez.

Kezka adierazi da etxebizitzen prezioa ez bada mugatzen eta alokatzeko edo erosteko modurik ez badago, Oiartzungo gazteak herritik joango ote diren, horrek ekar ditzakeen ondorioekin (udalerriaren zahartze progresiboa, herriko dinamika edota ekimenen ahultzea eta abar). Esaterako, etxebizitza aldatu beharrean dauden gazteen artean, guztiak leudeke prest Oiartzun utzi eta beste herri batera joateko, baldin eta baldintza hobeetan etxebizitza bat topatuko balute.

Gurasoen etxebizitza utzi eta emantzipazioan pentsatzen ari diren gazteen artean, Oiartzunen geratzeko nahia edo desioa indartsuagoa da baina erdiek esan dute beren helburuak erdiesteko aukera bat litzakela beste udalerri batera mugitzea.

ALTERNATIBA POSIBLEEN AURREAN ZER?



Ikerketan zehar, bai lehen fase kualitatiboan eta baita bigarren fase kuantitatiboan ere, hainbat etxebizitza eredu eta soluzio posible planteatu zaizkie gazteei, baloratu ditzaten eta baita hauen inguruan hausnartzeko ere. Honako ideiak atera dira:

- *GAZTEEI EMANTZIPATZEN LAGUNTZEKO ERRENTA*

  Galdekatutako ia gazte guztiek egoki ikusten duten soluzioa da, beti ere, baldintza batzuk betetzearen truke bada (diru-sarrerak, egoera ekonomikoa,…). Nahiz eta administrazioaren aldetik horrelako laguntza bat martxan jartzea nahiko zalantzaz ikusten duten, beste udalerri batzuetan dauden diru-laguntzen erreferentziak ezagutzen dituzte batzuk eta eredu horiek erreferentziatzat hartzea eskatzen diote Udalari.

- *HERRITARREI BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA GEHIAGO ESKAINTZEA*

  Herritar gazte gehienak neurri honen alde daude, batez ere, alokairuan eskaintzen badira. Oiartzungo alokairuzko etxebizitzen eskaintza oso mugatua dela iritzita, administrazioak lagundutako alokairu soziala jartzea eskatzen da, gaur egungo bizi edo familia-ereduetara moldatuta, bai tamaina aldetik eta baita distribuzio aldetik ere.

  Babes Ofizialeko Etxebizitzak salgai jartzea jende gutxiagok ikusten du soluzio moduan, batik bat, Oiartzunen horrelako baldintzetan eraikitako azken etxebizitzak saltzeko egon diren arazoak ikusita.

- *ALOKAIRU MUGATUAK, ETXE HUTSAK BETETZEKO NEURRIAK*

  Azken urteetan oiartzuarren pentsaera aldatzen ari dela azpimarratu da. Orain gutxi arte jabetza erregimena irudikatzen zen moduan etxebizitza-eredu hegemoniko gisa, gaur egun alokairua etxebizitza eredu moduan hartzen hasi da jendea. Hala ere, gaur egungo prezioekin zailtasunak daudela ikusten da alokairuan bizitzen jartzeko. Hori dela-eta, ondo ikusten da eta beharrezkotzat jotzen da prezioak mugatzeko programak martxan jartzea.

  Gai hau erabat elkarlotuta ikusten da beste bi auzirekin: etxe hutsak eta etxe jabeekin lanketa egin beharra. Izan ere, kezka adierazi da zenbaterainoko interesa ote duten etxejabeek hutsik dituzten etxe horiek alokairuan jartzeko, hainbat arrazoi direla medio (diru beharrik eza, seme-alabentzat gordetzea, beldurra etxea ondo zainduko ote zaien, etab…).

  Jada eraikita dauden etxebizitza hutsak merkaturatzea bultzatzeari begira, etxebizitza horiek jabeekin 'lanketa positiboa' egitea lehenesten dute gazteek, hau da, laguntzen edo hobarien bidez eragitea eta ez hainbeste isun edo zigorren bidez.

- *ETXE KOOPERATIBAK*

  Proposamen gisa egokia baloratu da, baina hainbat ñabardura jarri zaizkio egoki planteatzeko edota Oiartzunen kasuan funtziona dezan.

  Proiektu zaila, luzea, abstraktoa eta antolatzeko zaila izan daitekeela baloratzen da gazteek martxan jartzeko. Pertsona helduagoentzako aukera gisa errealagoa ikusten da

Puntu negatibo moduan aipatu da etxe gehiago eraikitzea eskatzen duela proposamen honek, eta alde horretatik dagoeneko eginak dauden gauzak erabiltzea egokiago baloratzen da. Lurrak Udalarenak izatekotan, ez da egoki baloratu jabetza erregimen tradizionalean egitea etxebizitzak. Etxebizitza horiek ere herriko izaera edo publikoagoa izateko formulak bilatu beharko lirateke

- *BASERRIAK ZATITU, BAJU ETA LOKALAK EGOKITU ETXEBIZITZA MODUAN*

  Alternatiba egoki moduan ikusi dira. Lokalen kasuan, gainera, beren aldeko puntu positibo gisa azpimarratu da. Hala ere, mugatuta daudela ikusten da Oiartzungo ezaugarriengatik. Familien baitako alternatiba moduan ulertzen dira, familiako kideak bizitzen jartzeko egokituko dira baserriak edo lokalak ziur aski.

1. IKERKETA KUALITATIBOA

METODOLOGIA

-Datu estatistikoen ustiaketarako erabili ditugun iturriak hauek izan dira:

-Oiartzungo Udal Errolda anonimoa, 2016.

-Instituto Nacional de Estadística (INE)

- Gazteen Euskal Behatokia (Eusko Jaurlaritzarena). Aurrera Begira 2015 txostena.

- Observatorio de Emancipación del Consejo de la Juventud de España (CJE)

-Elkarrizketa eta eztabaida taldeak

- ✓ Elkarrizketak: Hasteko, bi elkarrizketa egin ditugu herriko etxebizitzen bilakaera eta prozesua gertutik ezagutzen duten hiru aditurekin. Lehenengo elkarrizketan ikuspegi instituzionala jaso dugu, Udaleko idazkaria eta arkitektoa elkarrizketatuz. Bigarrenean, gazteek etxebizitzarekiko izan dituzten joerak jaso ditugu, herriko etxeen salmenta eta alokairua kudeatzen dituen aholkularitza bateko arduraduna elkarrizketatuz.

- ✓ Eztabaida taldeak: Ondoren, bi eztabaida talde egin ditugu gazteekin, beren errealitatea eta diskurtsoak zuzenean jasotzeko. Eztabaida talde bat gurasoen etxean bizi diren gazteekin egin dugu, eta bestea gurasoen etxetik kanpo bizi direnekin. Talde bakoitzean, Oiartzungo gazteen aniztasuna islatuta egotea ziurtatu nahi izan dugu eta erroldatik ateratako ezaugarrien arabera banatu ditugu profilak.

  Profil horien arabera, talde bakoitzean interesgarria iruditu zaigu Euskal Herritik kanpo jaiotako pertsona bat behintzat egotea. Gurasoen etxetik kanpo bizi diren pertsonen kasuan, lotu dugun pertsonak ez zekien euskaraz. Horregatik, bere iritzia jasotzeko baina eztabaida taldea euskaraz izatea ahalbidetzeko, baloratu dugu egokiagoa zela aparte elkarrizketa bat egitea pertsona horrekin.

  Eztabaida taldeetarako gidoia osatzeko hiru erreferentzia erabili ditugu: (1) Udalarekin zehaztutako egitasmoa eta galderak, (2) gaiaren inguruan bestela egin izan diren lanketak, eta (3) adituekin izandako elkarrizketetan jasotako informazioa Oiartzungo errealitatearen eta aurrera begirako ildoen inguruan.

JENDARTE ZAHARTUENEN ARTEAN, GAZTEA



Oiartzun 10.250 biztanleko udalerria da. Bere biztanleriak 1960 eta 1990 urteen artean izan zuen hazkunderik altuena (5.346 biztanletik 8.814ra pasaz) eta azken hamarkada eta urteetan goruntz jarraitu du erritmo baxuagoan.

Oiartzungo biztanleen %19,9a adin-tarte 'gaztean' kokatzen da, 16 eta 35 urte artean hain zuzen ere. Guztira, 2.038 oiartzuarrez ari gara hizketan.

Oiartzunen 119,4 adineko herritarreko 100 gazte bizi dira, hau da, zahartze indizea 119,4koa du. Herri oso zaharren kontestu baten barruan, nahiko herri 'gaztea' dela esan genezake (Gipuzkoa mailako indizea 136,2koa da, eta mundukoa 13,2). Halere, azkar zahartzen ari den herria da Oiartzun, duela 20 urte 66,6ko zahartze indizea baitzuen (Gipuzkoarena 95,0koa zen). Gaur egun 35-60 urte artean dituzten herritarrak pisu ikaragarria dute (biztanleriaren % 41a dira) eta urte gutxiren buruan zahartzen indizearen oraindik eta igoera handiagoa ekarriko dute. Hortaz, gazteek herrian duten pisua galtzen ari direla joera orokorra bada, udalerri guztientzat erronka oso garrantzitsua da bere herriko gazteak bertan gelditzeko aukera izatea, bai lana eta bai bizilekua eskuratzeko bideak ahal den neurrian zabalduz.



Gazteen pisua handiena duten zonaldeak Altzibar-Karrika (% 22,6) eta Erdigunea-Elizalde-Landetxe dira (% 21,0). Aldiz, pisu txikiena duten zonaldeak Ergoien-Gurutze (% 17,6) eta Arragua (% 17,7). Gazteak sekzioka eta sekzio bakoitzean gazteen pisua eta sekzio bakoitzaren zahartze indizea.



Aztertu den beste aldagai bat gazteen jaiolekua izan da. Euskal Herritik kanpo jaiotako gazteak batez beste Oiartzunen % 11,1 dira (oiartzuar guztien artean ehunekoa % 11,5 da). Euskal Herritik kanpo jaiotako portzentaje handiena Altzibar-Karrikan (% 14,0) eta Arraguan (% 12,7) dago. Zonalde 'autoktonoenak' ostera, Ergoien-Gurutze (% 6,5) eta Ugaldetxo (% 8,3) dira.

ETXEBIZITZEN GEHIEGIZKO PARKEA ETA EMANTZIPAZIORAKO ZAILTASUNAK

Oiartzunen 3.825 etxebizitzatan 10.250 herritar bizi dira, hau da, 2,6 herritar etxebizitzako, nahiko zifra estandarra. Azken urteetako bilakaerak dio geroz eta pertsona gutxiagoko etxebizitzetan bizi garela. Espainiako Estatu mailako neurketek diotenez[1], eta Euskal Herriaren bilakaera datua gertu ibili ohi da, 1991tik hona etxebizitzako 3,4 pertsona bizitzetik 2,6ra pasa gara.

Eboluzio horren irakurketa *Bigarren Trantsizio Demografikoa*ren baitan egiten da, hau da, mendebaldeko herrialde ekonomiko garatuen artean ematen den trantsizioan. Arrazoi nagusi moduan aipatu ohi dira jaiotza tasaren beherakada, bizi esperantzaren gorakada, eredu ekonomikoaren aldaketa eta emakumearen lan-munduratzea edota aldaketa sozial edo kulturalak, hala nola, familia eredu ezberdinen hedapena.

Etxeko batez besteko pertsona kopurua murriztu denez eta biztanleriak gorantz jarraitu duenez, etxebizitza kopuruak ere gora egin du. Beste udalerrietan bezala, etxebizitza asko eraiki da Oiartzunen, *'boom inmobiliarioa'* tarteko. Atal honen hasieran aipatutako 3.825 etxebizitzez gain, 357 etxebizitza gehiago daude herrian hutsik (parke osoaren %10 inguru). Etxebizitza hutsen gehiengoa zonalde diseminatuan kokatzen da eta ondoren zentro aldean. Etxebizitza parkearen % 10a hutsik egotea oso ehuneko altua da, nahiz eta, inguruko udalerrietan ere egoera oso antzerakoa den.



[1] Encuesta de Población Activa (EPA)

Etxe hutsak alde batetik, eta emantzipatu ezin duen gazte multzo handia bestetik. Oiartzungo Udal Erroldaren arabera, 16 eta 35 urte arteko gazteen herena baino gutxiago (% 32,3) dago gurasoen etxetik emantzipatuta. Gazteen Euskal Behatokiaren arabera, 2013.urtean Euskadiko emantzipazio tasa % 43,5ekoa zen eta emantzipatzeko batez besteko adina etengabe berandutzen ari da, 1991.urtean 26,3 urte izatetik 2011.urtean 29,9 urte izatera. Observatorio de Emancipación del Consejo de la Juventud de España (CJE) behatokiaren arabera 2015.urtean Espainiako Estatuko 30 urtetik beherako % 20,8a zegoen emantzipatuta.

Ikuspegi ekonomizista batetik (Ballesteros J.C: et al., 2012) emantzipazioaren berandutzea azaltzen duten arrazoi nagusien artean bi azpimarratzen dira, biak elkarlotuta daudenak eta bien arteko oreka faltan oinarritzen dena: etxebizitza-merkatuaren eta lan-merkatuaren baldintzen arteko desoreka. Batetik, etxebizitzen prezio altua (bai salmentarako eta baita alokairurako ere) dago, Oiartzunen '*boom* inmobiliarioaz' gain, Donostirekiko gertutasunak eragiten duena batez ere eta, bestetik, gazteen langabezia tasa altua (azken datuen arabera, EAEko gazteen langabezia tasa % 25-30 inguruan kokatzen da[2]) eta lana dutenen artean, prekarietatea eta ezegonkortasuna.

Faktore gehiago ere sartu ohi dira ekuazioan, beraien artean elkar-eraginean daudenak. Langabezia tasa altua dela medio, gazte askoren aukera ikasketa garaia luzatzea izan ohi da eta horrek berarekin dakar bizitza-faseen luzapena eta emantzipazioaren berandutzea. Bestetik, ikuspegi instituzionalista batetik, emantzipazioa administrazio publikoak hori bultzatzeko egindako esfortzuaren araberakoa da. Eta Euskal Herrian urte luzez horren hutsune handia egon da, alokairua albo batera utziz eta jabetza pribatua sustatuz. Pertsonen arteko harreman ereduen aldaketa ere sartu beharko genuke, esaterako, bikote harremanen ezegonkortasun handiagoa.

[2] Encuesta de Población en Relación con la Actividad (PRA)

JOERA: EREDU ALDAKETARA BIDEAN

Oiartzungo gazteen, eta orokorrean Hego Euskal Herriko gazteen, gehiengoa gurasoen etxean bizi da eta joera orokorra emantzipatzeko 'momentu ona' itxarotea da, hau da, lan egoera hobea edo aukera hobeak, gaur egungo egoera hobetuko delakoaren esperantza hedatua baitago. Emantzipazio ezaren karga sare familiarrak eraman ohi du eta askotan gurasoak beraiek dira balizko 'momentu ona' itxarotea gomendatzen dutenak, bide alternatibo bat jorratzea albo batera utziz.

> "Ez da pixkat lehen esaten genuna igual ba guri ere etxen esan digutela gurasoak "ez, ez jun alkilerrea itxoin zazu pixkat egon zaitez nerekin beste 3 urte bizitzen ta ya gero erostezu" (Indenpendizatua, 3)

Halere, geroz eta gazte gehiago dira azken urteetako 'ohiko bidea' edo lanpostu finko bat eskuratu eta etxebizitza erostea albo batera utzi eta beste soluzio batzuk bilatzen dituztenak. Erabakiak ez du zertan gustukoa izan behar, askotan egoerak behartua da, baina bide estandarrean ez aurrera ez atzera geratutako jende askorentzat irtenbidea bestelakoa izan da. Soluzio nagusia etxebizitza alokairuan hartzea da. EAE mailako datuek argi eta garbi erakusten dutenez lehen etxebizitza eskuratzeko alokairura jotzen dutenen ehunekoa etengabeko gorakadan sartuta dago 1991.urtean % 9,2ak jotzen zuen alokairura, 2006.urtean % 19,0ak eta 2013.urtean % 49,4ak. Bestetik, etxebizitzak jende gehiagoren artean konpartitzea, etxe hutsak okupatzea eta bestelako soluzioak ere ugaritzen ari dira.

Lehenago aipatu den moduan, aldaketa ekonomiko, kultural eta sozialen ondorioz pertsona gutxiagoz osatutako etxebizitzak ditugu inguruan. Horrek etxebizitza eskaera ere aldatu egin du, etxebizitza txikiagoak behar baititu jendeak. Bestetik, bizitza itxaropenaren gorakadak adineko pertsonen pisua handitu du, asko eta asko bakarrik bizi direnak. Biztanleriaren bilakaera negatiboa izaten hasi den epealdi honetan, jadanik eraikita dauden etxebizitzei erabilera ematea erronka handia da edozein udal edo administraziorentzat. Etxebizitza eskaera badago baina eredua aldatzen ari da eta egoera berrira egokitzea klabea da, gazteen artean dauden irtenbide alternatiboei erantzun egoki bat emanez eta ahal den neurrian bide horiek sustatuz.

OHIKO ETXEBIZITZA PROIEKTUA NAGUSI, BAINA ALTERNATIBAK AREAGOTZEN

Elkarrizketatutako gazteen artean zabalduena topatu dugun etxebizitza proiektu ideia ohiko proiektua deritzoguna izan da: etxebizitza bakarrik edo bikotearekin hartu eta erostea da helburua.

> Hemengo bizi eredua, azken finean, denok pentsatzen dugu edo badakizu dela aurreztu gero erosteko. (...) Pentsatzen dut ez dela aldatuko gauza. (Gurasoen etxean 1)

> Nik uste dot oso problema kulturala dela, hobeto da erostea, hoi esan digute behintzat ez? Erosi ze alkilerrean dirua botatzen ai zea. Joe ba pixka gehiagotik ba erosi ezazu o sea nire gurasoan mentalidadea pixkat hortik, jardun beharrean dirua botatzen erosi ta ya zutzat da. (Independizatua, 3)

Alokairua zerbait transitorio gisa planteatzen da: gaztea zaren bitartean, etxea konpartituta eta merkeago bizitzeko. Baina alokairuan bizita dirua "galtzen" delako irudipena agertu da.

> Nik uste dut jende askok pentsatzen dula: diru hori noa diju? Pagatzen zuna ematen du como que cae en saco roto alkilerrekua. Eta bestia pentsatzen dezu "bueno, pagatzen dutena gero da neria". (Gurasoen etxean, 1)

Hala ere, azpimarratu da azken urteetan mentalitate aldaketa ematen ari dela: alokairua bizi eredu gisa gero eta gehiago onartzen ari da jendea: berdin zaielako alokatu edo erosi, edota erosteak dakarren loturak zalantzak sortzen dituelako.

> Yo podría vivir toda la vida de un alquiler. No me gusta una hipoteca, porque creo que es condenarte toda la vida con un banco. Y no tendría ningún problema en vivir de alquiler toda la vida. (Gurasoen etxean, 2)

Independizatzeko zailtasunen aurrean, bi joera nabaritu dira. Lehenengoa da gurasoen etxean gelditzea ohiko etxebizitza proiektu baterako aukera agertu arte.

> Ga: Bai, ados. Es que bakarrikan jun nahi badezu bizitzea, es que ezin dezu. Alkilerra zenbat da, 500 euro minimo? Hori bajuna. O sea, hori bakarrikan ordaintzeko, zuk esaten zenuna, o sea, ez dut nahi oaintxe bertan konpartitu beste batzukin. Pues, horretako gurasokin konpartitzen dut. (Gurasoen etxean, 6)

Bigarren, eredu alternatiboak bilatzeko joera ere badago. Horien artean kokatzen dira jabetza erregimenean etxea erostea inplikatzen ez duten proiektuak, adibidez: lagunekin etxebizitza konpartitzea alokairuan, etxea eraikitzea kooperatiba moduan (nahiz eta jabetza inplikatu), bajo eta lokalak eraberritzea edo baserriak zatitzea, okupazioa edo beste modu batera asetzea etxebizitza beharra.

OIARTZUNEN BIZI NAHIA

Oro har, Oiartzungo gazteek Oiartzunen bizitzeko nahia dutela adierazi da. Auzoen artean ez dago lehentasunezko desberdintasunik. Kaxkoa edo zerbitzu gehiago dituzten auzoak erosoagoak direla azpimarratu da hala ere.

> 3: Nik uste dut gehienak zentruan bilatzen degula.
>
> 5: Eskuragarritasunagatik edo.
>
> 6: Ba nei ez zitzaidan inportako... Bueno, Arragua ya ez, baño... (barreak)
>
> 4: Segun ze auzo oso apartatuak dozte, ordun... O sea, Altzibar edo Iturriotz batetikan posible duzu oinez muitu, edo Ugaldetxotik. Baino Gurutze, Ergoien ta Karrikatikan ya... (Gurasoen etxean)
>
> Es que es un pueblo... También hay un montón de gente que nunca sale de Oiartzun, que son 100% de aquí, quieren ser de aquí, quieren hacer su vida aquí y si quieren salir de aquí, sí o sí es tener un curro, o sino un curro que paga bien, o sino cambiar de sitio. (Elkarrizketa, independizatua)

Hala ere, adierazi da hainbat gaztek beren auzoan edo baserri inguruan gelditzeko joera dutela.

> 2: Nik bai ikusten dudala zuk esan duzuna, ez, baserriko jendea daka tendentzi edo nahi handiyo bertan gelditzeko. Baina nik adibidez Arraguakoa naz ta Ugaldetxon bizi naz eh Elizaldeko batekin bizi naz
>
> 3: Nik esango nuke barrura mugitzea ez dala hain arrarua, entre comillas baserri munduan dena baina pentsatzen dut beste auzotan ez dala holako zeaikan izan (…)Nik'e bai mugitu nintzen kostatu zitzaiten eh plazara mugitzea. Orain hobeto naola han baino eh. Baino igual da hi herrikoa eta auzokoa nik uste dut pixkat sentimendu dula. (…) (Independizatuak)

Bestetik, hainbat auzori desprestigio puntu bat aitortzen zaie desberdintasun ekonomikoen eta sozialen arabera.

> 3: (…) baino auzo arteko desberdintasunak ekonomikoki oso nabarmenak dia. (…) Arraguangatik... Oiartzuarrak askotan ez dut esango lotsa sentitu dutela Arraguagatik baino…
>
> 4: Bai lotsa sentitzen dute…
>
> 5: Rollo, lo vendemos a Rente… (Independizatua)

ETXEBIZITZA ARAZO BAT DA GAZTEENTZAT, ALOKATZEKO ETA EROSTEKO ZAILTASUNENGATIK

Gazteen kasuan, alokatzeko eta erosteko zailtasunak daudela ikusten da nabarmen.

Gehien azpimarratzen den arrazoia erosteko ahalmena eta alokairu edo salmenta prezioen arteko desberdintasuna da.

> Oiartzun es tan caro en general. Alquiler. Gente, jóvenes, todos quieren salir de casa pero no pueden salir de la casa de sus padres. A ver, las viviendas están bastante bien, yo creo. Pero es tan caro que es imposible para gente que no tiene curro, es imposible salir de la casa de sus padres. (Elkarrizketa, independizatua)

Alokairua garestia izateko beste arrazoi bat ere aipatzen da. Orain arte familien jabetzako etxeak izan direnez Oiartzungoak, etxeen egitura edo ezaugarriak ez dira egokienak kasu askotan alokairuko eskaerarentzat: sarritan, etxe handiegiak izaten dira dagoen alokairu eskaerarako.

> En este país no existe la cultura de alquiler. Yo creo que en el futuro sí, pero ahora no. Y por eso no existen casas que puedan ser baratas. Siempre son súper grandes y necesitas unos cinco amigos mínimo para entrar a una casa. (Elkarrizketa, independizatua)

> 1: Bueno ta ya bakarrikan ya pixkat imposible (barreak). Ni hasieran batean bakarrik hasi nintzan bilatzen baina segituan ya desistitu nun ikusita… Ezin naiz ni bakarrikan permititu bizitzea.

ETXEBIZITZA EREDU DESBERDINEN BALORAZIOA: FUNTZIONATUKO LUKETE OIARTZUNEN?

Hainbat etxebizitza eredu planteatu zaizkie gazteei, baloratu ditzaten eta beren inguruan hausnartzeko. Honako ideiak atera dira bakoitzaren inguruan:

✓ *ETXE KOOPERATIBAK*

Proposamen gisa egokia baloratu da, baina hainbat ñabardura jarri zaizkio egoki planteatzeko edota Oiartzunen kasuan funtziona dezan. Jarraian zerrendatzen dira:
Zailtasunak

- Proiektu zaila, luzea, abstraktoa eta antolatzeko zaila izan daitekeela baloratzen da gazteek martxan jartzeko. Pertsona helduagoentzako aukera gisa errealagoa ikusten da:

  5: Nik alde txarra ikusten diot oso atrebitua ez den jendiari kostatu ingo litzaiokeela hori egitea, pauso hori ematea. (…) Gainera, gaur egun dagon jende komoduakin-edo, hoiei behintzat kostako zitzaiela. Bueno, azkenian hoiek ez dakitela pisua bilatzen hasiko dien.
  7: Nik uste dut zerbait komodogo bilatzen dugula, ya egina dagon zerbait. (Gurasoen etxean)

- Puntu negatibo moduan aipatu da etxe gehiago eraikitzea eskatzen duela proposamen honek, eta alde horretatik dagoeneko eginak dauden gauzak erabiltzea egokiago baloratzen da:

  [Las casas cooperativas] son lo que necesitan más cosas. Todos los demás existen ahora, es sólo convertir una cosa que existe ahora. Es una solución más rápida, yo creo que finalmente más barato también. (Elkarrizketa, independizatua)

  Auzoetan juntatuko balitz talde bat sustatu nahi duena kooperatiba, nahiz eta betiko eredua izan, nahiz eta berriro eraikitzea izan -eta alde horretatik bada kuestionagarria, berria eraiki behar den ala ez- (…) (Elkarrizketa aditua, 1)

Proposamenak

- Udalak bidelagun lana egitea antolaketan eta gestioan, eraikuntza osatzeko proiektua errazteko.

  Estaba pensando que si el Ayuntamiento pudiera hacer lo que sea, unas entrevistas o algo así para los aplicantes que quieren hacer eso y el Ayuntamiento podría formar los grupos, gente que son parecidos y así. Para que no sea la base de una casa que nunca va a terminar. (Elkarrizketa, independizatua)

- Lurrak Udalarenak izatekotan, ez da egoki baloratu jabetza erregimen tradizionalean egitea etxebizitzak. Etxebizitza horiek ere herriko izaera edo publikoagoa izateko formulak bilatu beharko lirateke:

  Bueno nik adibidez, lurra udalarena bada, etzait iruditzen egokia nahiz eta kooperatiba bezala eraikina egin, etzait iruditzen egokia gero lur hoi neretzat izatea ta gero nere semearentzat. O sea, lurra publikoa baldin bada egin beharko litzateke beste formatua non jabetza, eztakit nola, baina jabetza gero berriz pasatzea beste batentzat edo holako zeozer. (Independizatua, 4)

✓ *BASERRIAK ZATITU, BAJO ETA LOKALAK EGOKITU ETXEBIZITZA MODUAN*

Alternatiba egoki moduan ikusi dira. Lokalen kasuan, gainera, beren aldeko puntu positibo gisa azpimarratu da

Hala ere, mugatuta daudela ikusten da Oiartzungo ezaugarriengatik.

– Familien baitako alternatiba moduan ulertzen dira, familiako kideak bizitzen jartzeko egokituko dira baserriak edo lokalak ziur aski:

Es que nik uste baserritakua eta hola pasatzen dela pues familitan igual, ez? Dakate baserri bat eta beraiek iten dute zatitu beren seme-alabak edo bertan bizitzeko. Pero ez da "neria da baserria eta egingo dut bizitza kanpoko jendia hor bizitzeko". O sea, gehio da familian gelditzeko. (Gurasoen etxean, 4)

[Azken bi hauetan, baserria eta bajoena, beti da familiko norbaiten bidez...?]

(Baiezko orokorrra ematen da)

Igual da familiak lehendikan dakan toki bat jartzia, pues ez dagon familiar batentzat. (Gurasoen etxean, 4)

– Bajo eta lokalen kasuan, mugatuta gelditzen da herriko espazio batzuetara aukera hori (erdiguneko tokietan, bajoak daudenetan):

Adibidez, bajuak... eztakit nola esan, da herri bat diseminatua, ordunklaro igual lokalak topatu posible dituzunak, topatu posible dituzu guneetan, gune urbanoetan. Leku batzuetan bajoak topatzea zaila da ordun zentzu batean mugatuta dago aukera hoi. Auzo batzutan. (Independizatua 3)

Holako aukera handirik ez dago Oiartzunen. Hemen batzuk egin dia Udaletxeko atze horretan. Baina gainontzekoan... Es que Oiartzunen bajorik ez dao. (Elkarrizketa adituarekin 3)

– Kezka agertu da gaur egun gazteek erabiltzen dituzten lokalak eraberrituz gero etxebizitza moduan (lokal horietan dauden gazte kuadrillak ateraz), gazteen independentziarekiko egoera hobetu edo okertuko litzatekeen. Bi auzien kudeaketa eta bi aldeen arteko oreka bilatu beharra azpimarratu da.

El sitio donde los jóvenes quieren ir, salir un poco de la casa de sus padres, y si lo vas a convertir en 2 habitaciones, pues ya vale para 2 súper bien y los 28, ¿qué? (…) Yo creo que finalmente, va a terminar peor que ahora para los jóvenes si vas a convertir un local de 30 gente en 2 ó 3 habitaciones. [¿Los locales, entonces, te parece que hacen un poco de recurso para la independencia?] Sí, fijo. (...) En todos es... No te lo dicen directo, pero sí. Es un sitio donde tú puedes estar con tus amigos como si fuera tu casa o algo así. (Elkarrizketa, independizatua)
Hoi igual beste arazo bat da ez? Ze in gazteekin, ze eskeini gazteari. Oiartzunen gaztiak ez baldin badakate lokal bat pff... (Independizatua 3)

✓ *ALOKAIRU MUGATUAK, ETXE HUTSAK BETETZEKO NEURRIAK*

Azken urteetan oiartzuarren pentsaera aldatzen ari dela azpimarratu da. Orain gutxi arte jabetza erregimena irudikatzen zen moduan etxebizitza-eredu hegemoniko gisa, gaur egun alokairua etxebizitza eredu moduan hartzen hasi da jendea:

Alkilerrak dozten bezela, erostia hobia dezu. Zergatikan pixkat gehixiorekin etxia zerorrentzako izango dezu. Baino mentalidade hori nik uste dut asko aldatzen ari dela. Nik

uste dut jendiari lasai bizitzea ere gustatzen zaiola, eta esan, "bueno, alkilerrin? pues alkilerrin eongo naz; eta ez da ezer pasatzen". (Elkarrizketa adituari, 3)

Poco a poco sí, yo creo que la dirección automáticamente va en dirección de alquiler para jóvenes. Que también todas las leyes cooperativas y así que sólo existen en el País Vasco son directamente de Escandinavia. Que hay un montón de comparación entre empresas y... Y la mentalidad es muy parecida. (Elkarrizketa, independizatua)

Hala ere, gaur egungo prezioekin zailtasunak daudela ikusten da alokairuan bizitzen jartzeko. Hori dela-eta, ondo ikusten da eta beharrezkotzat jotzen da prezioak mugatzeko programak martxan jartzea.

Gai hau erabat elkarlotuta ikusten da beste bi auzirekin: etxe hutsak eta etxe jabeekin lanketa egin beharra.

- Oiartzunen etxe huts asko daudela azpimarratu dute parte-hartzaileek:

  [Casas vacías] Sí, hay un montón. Hay un montón de casas que no hay nadie. No sé por qué los propietarios no hacen nada, alquiler o algo así. Pierden dinero. Hay un montón de habitaciones, en años, en los que no hay nadie. (Elkarrizketa, independizatua)

- Etxebizitza hutsak merkatura ateratzea garrantzitsua dela azpimarratu da, eta horretan Udalaren inplikazioa beharko dela adierazi:

  Nab: Yo creo que tendría que obligar el Ayuntamiento a los dueños de las casas. Obligar o hacer más barato para que la gente joven se anime. Lo que no puede ser, no en Oiartzun, en general: que haya casas vacías mientras la gente joven vive con sus padres. (Gurasoen etxean, 2)

- Era berean, etxe jabeekin paraleloki lan egin beharra azpimarratu da. Izan ere, kezka adierazi da zenbaterainoko interesa ote duten etxejabeek hutsik dituzten etxe horiek alokairuan jartzeko, hainbat arrazoi direla medio (diru beharrik eza, seme-alabentzat gordetzea, beldurra etxea ondo zainduko ote zaien…).

  Horietan Udala saiatuko da jabeekin hitz egiten eta esaten "bueno, a ver, hau da plana, zer iruditzen zaizute?". Horrelako etxeak, eraikin guztia denean batena eta interlokutore bat daukazunean, Udalak egingo du saiakera. (Elkarrizketa adituari, 1)

<u>Kezkak</u>

- Kezka adierazi da etxebizitzen prezioa ez bada mugatzen eta alokatzeko edo erosteko modurik ez badago, Oiartzungo gazteak herritik joango ote diren, horrek ekar ditzakeen ondorioekin.

  Igual no es un problema. Es que gente se va a buscar a otro sitio en alquiler. Si no aquí, pues en otro sitio. Pero para un pueblo que si los jóvenes se van de aquí, puede ser finalmente mal. Si todos los años la gente joven se va, para los pueblos pequeños puede ser mal en el futuro. (Elkarrizketa, independizatua)

  Kontzientziazio sozial bat ere egin beharra dago nik uste. Urte askotako kulturatik gatoz esaten diguna propietatea betiko, neria, sartzen da nere etxean eh.. ni ta nere ama, intimitade zea hoi. Ta pentsatzen dut igual hor kanpaina batzuk egin beharko liakela ta igual ez dia momentuan iritziz aldatuko baina polliki-polliki mella pixkat egiteko. (Independizatua, 3)

<u>Proposamenak</u>

- Etxejabeekin lanketa egiteko, jarrera positiboarekin gerturatzea proposatzen da berengana; martxan jartzera doazen ekimenen alde onak azpimarratuz. Zigor formatuan hartutako neurriek hainbesteko eraginkortasunik ez dutela izango iruditzen da:

  Con una manera más positiva, más con motivación y así para los propietarios. De esta forma ya vale. Las cosas que tú dices: la renta sería un poco más barata, pero tienen otras cosas que finalmente les va a ser igual el dinero. Es que si no, no es justo para los propietarios; pero tampoco no es justo para nadie si están vacíos. Pero la manera de hacerlo, no creo que... un acercamiento o un planteamiento negativo no. Es que en un pueblo esto se va a... Yo creo que crea más conflicto. Que una manera positiva para todos, y explicar todo bien. (Elkarrizketa, independizatua)

  [Etxe hutsa daukan jendeari IBIa igotzea] Horrek ez dakit soluzio handirikan eman duen. Berak jakingo dute, baino ez dakit soluzio gehiegirik eman duen. (Elkarrizketa adituari, 3)

  Nik jabian aldetik ez dakit. Esango zuten "inpuesto gehiago pagatuko dut eta ya está". (…) Nik uste dut hauek jarrita, akordio batera iristen bada jabeakin eta eskuragarria baldin bada pisua edo alokairua edo lo que sea baietz. Jendea animatuko zela. (Gurasoen etxean, 4)

- Etxejabeekin lanketa egiteko modu desberdinak proposatu dira: aspektu positiboak adierazi, alokairuan jarriko diren pertsonengana gerturatu edota etxebizitza bulegoa erabili etxejabeentzat ere zerbitzuak eskaintzeko.

  También yo creo que los dueños de las casas tienen que concienciar. Porque muchas veces piensan "me están haciendo una putada". Igual les vienen con estas propuestas los ayuntamientos y dicen "me están haciendo una putada". (Gurasoen etxean, 2)

  Nik ere uste dut diru laguntzak eman baino garrantzitsuagoa dela jabiakin zea jaistia. (Gurasoen etxean, 3)

Proposamen horien artean, etxebizitza bulegoaren gisako zerbitzu bat jartzea ondo legokeela planteatu da etxejabeei beren aukeren inguruko informazioa helarazteko:

Ba dakazu etxe bat, ofizina bat ta igual "dakat bigarrengo etxe bat ze egingo nuke"? Ta hor nolabait eduki asesoratzeko... Ze igual gaztia zea ta dazkazu ideia batzuk; baino jendea helduoago dana da como igual itxiagoa... Ba dakazu hor pertsona bat konfiantzakoa "pues beitu ba hau ta hau ta hoi..." Ba hoi ondo egongo zen, adibidez. Bigarrengo etxea dakatena hutsa adibidez, holako ofizina batea jungo balitzake igual cambia de opinión. (Independizatua, 5)

✓ *BESTELAKO PROPOSAMENAK*

Adineko pertsonak inplikatzen dituzten proiektuak

Hainbat proposamen egin dira adineko pertsonak inplikatzeko gazteen etxebizitza proiektuak definitzerakoan.

Urte gutxi batzuetan etxebizitzaren gaian eragin nabarmena izango duela hausnartu da Oiartzungo eta, oro har, Europako biztanleriaren zahartzeak:

(…) la más grande proporción de gente que vive en Europa son muy viejos. Cuando este grupo de gente va a morir o algo así, en ese momento va a haber un montón de casas y habitaciones libres. Por eso yo creo que va a cambiar un montón en unos 20 años o así. (Elkarrizketa, independizatua)

Horrez gain, gaur egun ere dagoeneko hainbat proiektu planteatu daitezkeela adierazi da, adineko pertsonen eta gazteen etxebizitza proiektuak batera kudeatzeko. Etxe kooperatiben proiektuei edota baserriak banatzekoei ikusi zaizkie aukera horiek:

Igual egin daiteke zeozer zaharrentzat ba ni ya 30 urtetara pues esatea pues bueno nik nere etxea saldu dezaket edo jarri dezaket alokairuan eta sartu naiteke holako etxe kooperatiba batean nere zahartzaroa han pasatzeko. Ta horrelako eztakit nola esan, hola nere etxea berriz ta eztakit. Adibidez, nik orain ikusten ditut ta herri hontan badago jende zaharrak nahiko... salseroak zaharrak edo helduagoak... ta igual sartuko zian kooperatiban asuntuan bere zahartzaroa ez pasatzeko han goian (residentzian) eta aldiz, beraien etxea sartzea holako sistema batean...

Si el caserío es súper grande, si vive lo que sea: un hombre súper viejo que ha muerto su mujer o algo así, vale. Sería mejor para él también un poco de gente y así. Depende de la situación; no es general. Cómo está la casa, quién está viviendo allí y así. (Elkarrizketa, independizatua)

Beste modu bateko etxe eraikuntzak planteatzea

Ohiko etxebizitzak izan beharrean, beste materialekin egindako etxe errazagoak edo merkeagoak egitea aukera gisa ikusten da:

Nik bai dakat sentsaziyoa, ez dakit eh, igual etxeak eraikitzeko modua, joe igual da... ba ladrillua ez dakit nolakua eztakit zer, badakit zer. Ta pentsatzeet horrek ebai azkenian garestituko dula beste herrialde batzutan pentsatu dut igual egiten dituztela blokeka etxeak ta bram ta bram montatzen dituzte ta horrek igual dirutan eragina badakala, etxea erosteko garaian igual. (Independizatuak, 3)

Ahora hay un montón de formas de hacer casas súper barato. En Amsterdam y en Finlandia están probando también. Míticos contenedores, caja de metal de los barcos que puedes meter como legos. Hacen como casas súper grandes de eso que no vale más o menos nada, son súper guay, y la cosa es que puedes meter en da igual qué sitio. Y después puedes cambiar de sitio. Por ejemplo, puedes alquilar un terreno para hacer eso. Y son súper baratos. Son súper populares ahora. Esto sería una manera, una opción para jóvenes. (Elkarrizketa, independizatua)

Okupazioa

Adierazi da azken urteetan gazteek gero eta errealagoa ikusten duten aukera dela okupazioarena, etxetik irteteko lehenengo pauso gisa.

1: Nik uste igual aukera hori bai dela gaur egun inoiz burutik pasa ez zaionai, pasatzen zaiona. (...) Ikusita nola daon gauza, alternatibatan sartzen dut. (Gurasoen etxean)

Adibidez, hemengo okupak zeudenak, daudenak, ba jende asko "etxetik jun nahi dut" ta 8 pertsona, 10 pertsona diferente ta behin ya bikoteakin eiten dezu bizitza pues igual preferitzen dezu alkiler batea jutea, baina lehengo urte hoiek gazteenak zeanak pues hor behar dezula zure espazio hoi, ez gurasotikan aparte bizitzeko. Nire kuadrillako bost edo sei egondu dia ta behin hortikan pues helduagoa ya zahartzean ba alde eiten dezu. (Independizatua, 5)

INFORMAZIOA HELTZEAREN ETA HELARAZTEAREN GARRANTZIA

Azpimarratu da etxebizitzaren gaiaren inguruan egiten diren gauzei buruz (antolatzen diren ekimenak, informazioa helarazteko jartzen diren aukerak…) garrantzitsua dela gazteei helaraztea edo iritsaraztea informazioa.

> 3: Bueno bere garaian etxebizitzan lehenegoan nahiko zeatu zen... gero kendu zen... Bere garaian bulegoa egondu zen.

> 5: Baina hoi oso ondo zeon ze egon beharrean zuk deika gaztia zea... ni juan nintzen behintzat, jun nintzenean bere garaian ta...gainea jendeakin zakala problema handiena ongiargitu ta

> 2: esaten zieten ze in behar tzun, nun apuntatu behar tzun, ze paperekin... (…) Nik adibidez holako postuak bai bota izan dut faltan (Independizatuak)

> Sikiera baldin bakizu zeozertan ai dila... Zeozertan ai badia, informatzia behintzat: hontan gabiltza. Hola bakizu. (Gurasoen etxean, 1)

AURRERA BEGIRAKO PUNTUAK

Ikerketa honen garapena hobetzeko asmoz eta gazteen etxebizitza proiektuari dagozkien etorkizuneko lanketak bideratzeko, bi ideia mahaigaineratu nahi ditugu:

- **Udalaren paperari buruz etxebizitza proiektuak kudeatzerakoan**: elkarrizketa eta eztabaida-taldeetatik eratorritako informazioari begiratuta, ondorioztatu daiteke Oiartzungo gazteen artean ohiko etxebizitza ereduaren aldeko joera nagusitzen dela (hots, etxea eskuratzea jabetza erregimenean).

  Kasu honetan, edonola ere, iruditzen zaigu Udalak sustatzeko proiektu eta inizatibetan herri mailan sustatu nahi diren ereduak indartze aldera jotzea komenigarria dela; are gehiago kontuan izanda inflexio puntu batean kokatzen garela etxebizitza ereduen inguruan, hau da, ohiko ikuspegiarekin batera beste alternatiba batzuk mahaigaineratzen hasi diren unean.

- **Etxejabeekin ere gaia landu beharra**: ulertzen dugu gazteekin egindako lanketa, beren beharrak eta interesak ezagutzeko, ezinbestean uztartuta joan behar dela paraleloki beste lanketa batekin. Hain justu, Oiartzunen etxebizitza huts ugari daude: etxebizitza horien jabeekin gaia lantzea.

2. IKERKETA KUANTITATIBOA

2.1. METODOLOGIA

XEHETASUN TEKNIKOAK:

Unibertsoa: 16 eta 35 urte arteko oiartzuarrak (2.038 herritar).

Muestra: 300 herritar.

Landa lana: 2016.urteko urriaren 17 eta 30 bitartean. Elkarrizketak aurrez aurre egin dira, euskaraz eta gazteleraz, elkarrizketatuaren nahiaren arabera.

Akats tartea (guztiz ausazkoak diren laginketetarako): ±% 5,3 lagin osorako, % 95,5eko konfiantza mailarekin eta p=q=%50,0 denean.

ERABILITAKO TEKNIKA

Helburuak zein ziren ikusita, ikerketarako erabili den teknika inkesta izan da, hain zuzen, herritarrei egindako elkarrizketa egituratuak aurrez aurre eta ausaz aukeratutako oiartzuarrei. Elkarrizketak euskaraz zein gazteleraz egin dira, elkarrizketatuaren nahiaren arabera eta inkesten iraupena batez beste 10 minutukoa izan da.

LAGINKETA

Lagina unibertsoaren ahalik eta ordezkagarriena izan zedin, laginketa bi urratsetan egin dugu:

- Lehenik, udal erroldako datuak hartu eta Oiartzungo gazteak aldagai ezberdinen arabera multzokatu ditugu (sexua, adin-tartea, auzoa eta etxeko kide kopurua). Horrela, errealitatean ematen den banaketa orekatua laginean erreproduzitzea bilatu dugu.
- Ondoren, zori sistemikoaren bidez aukeratu da multzo bakoitzetik zein pertsona inkestatuko zen. Zoriz aukeratutako herritar horrek inkesta bete nahiko ez balu (edo etxera egindako hiru bisitetan ez bada kontaktatzea lortu), bere ezaugarri soziodemografiko berdinak betetzen dituen beste herritar batzuk ordezko bezala erabili ditugu.

ETXEBIZITZA ALDAKETA BEHARRA ETA EMANTZIPAZIO BEHARRA

Bereziki aztertu ditugun bi perfil mota izan dira 'etxebizitza aldatzeko beharra duten gazteak' eta 'gurasoen etxea utzi eta emantzipatzeko beharra duten gazteak'.

Lehen multzoan sartu ditugu bi baldintza betetzen zituzten herritarrak. Batetik, gaur egun bizi den etxebizitza aldatzeko 'behar handia' edo 'behar ertaina' adierazi dutenak eta aldi berean aldatuko lirateken etxebizitzaren bila dabiltzana esan dutenak. Bi baldintza horiek bete dituzten gazteek osatzen dute multzo hau.

Bestetik, bigarren multzoan sartu ditugu bi baldintza betetzen zituzten herritarrak. Batetik, gurasoen etxea utzi eta bere kasa bizitzeko etxebizitza baten 'behar handia' edo 'behar ertaina' adierazi dutenak eta aldi berean eskuratu nahi luketen etxebizitzaren bila dabiltzana esan dutenak. Bi baldintza horiek bete dituzten gazteek osatzen dute multzo hau.

2.2. DATU NAGUSIAK

2.2.1. INKESTATUEN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK ETA LAGINAREN ONTASUNA

Inkestatuak aukeratzerakoan Oiartzungo gazteen aldagai soziodemografikoak kontutan izan ditugu eta errealitatearen ahalik eta argazki fidelena egiten saiatu gara. Ikusten den bezala, laginaren eta unibertsoaren arteko aldea oso txikia da. Inkestatuen erdiak emakumeak dira eta beste erdiak gizonezkoak. Inkesta gehien erantzun dituen adin tartea 16-23 urtekoa da (%38,9), ondoren 30-35 urte artekoa (% 32,8) eta bukatzeko 24-29 urtekoa (% 28,6). Inkestatuen gehiengoa Elizalde auzoan bizi da (%35,2).

Gazteen % 60,2 gurasoekin bizi da eta % 39,9 modu batean edo bestean emantzipatuta daude

Inkestatuen sexua

	Lagina		Unibertsoa
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Ehunekoa (%)
Emakumezkoa	152	50,4	50,0
Gizonezkoa	149	49,6	50,0
Guztira	301	100,0	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



1.2. Inkestatuen adin-tartea

	Lagina		Unibertsoa
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Ehunekoa (%)
16 eta 23 urte artean	117	38,9	38,7
24 eta 29 urte artean	86	28,6	28,6
30 eta 35 urte artean	98	32,6	32,8
Guztira	301	100,0	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Inkestatuaren bizilekua

	Lagina		Unibertsoa
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Ehunekoa (%)
Elizalde- Erdialdea	106	35,2	35,0
Altzibar-Karrika	64	21,2	21,4
Arragua	36	12,0	12,0
Ugaldetxo	36	11,9	11,9
Iturriotz	32	10,7	10,6
Ergoien-Gurutze	27	9,0	9,1
Guztira	301	100,0	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Etxeko kide kopurua

	Lagina		Unibertsoa
	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Ehunekoa (%)
Bat edo bi kide etxean	75	25,0	21,7
Hiru edo lau kide etxean	190	63,0	59,9
Bost kide edo gehiago etxean	36	12,0	18,4
Guztira	301	100,0	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Norekin bizi den

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Estrapolatuta
Gurasoekin bizi da	181	60,2	1.227
Emantzipatuta bizi da	120	39,8	811
Guztira	301	100,0	2.038

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



2.2.2. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK ETA GURASOEN ETXEAN BIZI DIRENAK: EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Emantzipatutako gazteak gurasoen etxean bizi direnekin alderatzen baditugu, ezberdintasunik handiena adin-tartean topatuko dugu, hau da, emantzipatutakoen hamarretik zazpik (% 71,5) 30 eta 35 urte bitarte ditu. Aldiz, gurasoen etxean bizi direnen bi heren (% 63,3) 16 eta 23 urte artekoak dira.

Desberdintasun gehiago ere nabari dira noski bi multzoen artean, asko adinarekin lotutakoak, esaterako, jada emantzipatuta daudenen artean gehiago dira ikasketa maila altuagoa dutenak, lanean dabiltza gehiengo handi bat eta jatorria Oiartzundik kanpokoa duten pertsona gehiago daude. Auzoari dagokionez ere, Altzibarren eta Elizalden bizi dira batez ere.

Sexua

	Gurasoekin	Emantzipatuta
Emakumezkoa	47	55,0
Gizonezkoa	53	45,0
Guztira	100	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Adin-tartea

	Gurasoekin	Emantzipatuta
16 eta 23 urte artean	63	2,0
24 eta 29 urte artean	30	26,5
30 eta 35 urte artean	7	71,5
Guztira	100	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Bizilekua

	Gurasoekin	Emantzipatuta
Elizalde- Erdialdea	40	28,5
Ugaldetxo	15	7,4
Altzibar-Karrika	14	32,8
Arragua	13	11,2
Ergoien-Gurutze	10	7,6
Iturriotz	9	12,6
Guztira	100	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Etxeko kide kopurua

	Gurasoekin	Emantzipatuta
Bat edo bi kide etxean	6,0	53,7
Hiru edo lau kide etxean	79,1	38,7
Bost kide edo gehiago etxean	14,9	7,5
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Ahalmen ekonomikoa (subjektiboa)

	Gurasoekin	Emantzipatuta
Oiartzungo batez bestekotik gora	37,1	18,8
Oiartzungo batez bestekoaren pare	29,7	29,8
Oiartzungo batez bestekotik behera	33,2	51,4
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Jaiolekua

	Gurasoekin	Emantzipatuta
Oiartzunen	84,0	49,8
Euskal Herriko beste udalerri batean	10,0	33,8
Euskal Herritik kanpo	6,0	16,4
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Ikasketa maila

	Gurasoekin	Emantzipatuta
Ikasketarik ez edo oinarrizko ikasketak	22,9	15,1
Erdi mailako ikasketak (Batxilergoa, lanbide heziketa)	50,3	37,5
Maila altuko ikasketak (Diplomaturatik gorakoak)	25,0	45,1
Besterik	1,8	2,3
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Lan egoera

	Gurasoekin	Emantzipatuta
Ikasle	45,4	0,8
Lanean	28,6	78,7
Langilea + ikaslea	17,3	5,9
Langabezian	8,1	12,9
Besterik	0,6	1,7
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Euskara gaitasuna

	Gurasoekin	Emantzipatuta
Ondo ulertu eta hitz egin	94,3	75,6
Hitz egin nekez baino ulertu ondo	3,7	12,7
Ez hitz egin ezta ulertu gabe	2,0	11,7
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



2.2.3. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN EGOERA

Lehen pausu bezala, emantzipazio modu ohikoena alokairua izan da oiartzuar gazteen artean (% 55) eta ondoren erosketa (% 25,5). Gainerako % 19,5ak beste aukeraren bat izan du etxebizitza eskuratzeko, bai bikotekidearena zelako jada, bai herentzian jaso zuelako edota familiakide batena delako

Behin alokairuan saltoa emanda, denbora batera, askok etxebizitza erosteko joera erakutsi dute eta gaur egun Oiartzungo gazteen % 60,7 jabetzako etxebizitza batean bizi da, % 27,2 errentan eta % 12,1 beste egoera batean

Etxebizitza erosita dutenen artean, erabaki horren argudio nagusia da alokairua eta hipotekaren prezioen artean ezberdintasun txikia dagoela eta hala izanik, nahiago izan dutela erostea, bestela alokairuan 'dirua alferrik botatzea' delako. Argudio horrekin lotutako arrazoiak eman ditu etxebizitza erosi dutenen erdiak gutxi gora-behera. Aipatu diren beste arrazoi batzuk izan dira, aukera ona suertatu zitzaiela erosteko, Babes Ofizialeko Etxebizitza tokatu zitzaiola edo besterik gabe jabetza nahiago zuela

Alokairuan bizi direnen artean, arrazoi nagusia 'etxebizitza erosteko behar beste diru ez edukitzea' izan da (% 74,9) eta ondoren 'kreditu bat hartzeko hipotekatu nahi ez izatea' (% 58,8)

Hala ere, errentan daudenen artean ia erdiak jarraitu nahiko luke egoera horretan (% 48,4) eta ia beste hainbestek etxebizitza bat erosi nahiko luke (% 44,4)

Emantzipatu zenean, nola egin zuen

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Etxea alokairuan	59	50,0
Etxea erosi prezio librean	20	17,0
Babes ofizialeko etxea erosi	10	8,5
Etxea alokairu sozialean	6	5,0
Beste aukera	23	19,5
Guztira	118	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Nola beste

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Familiakide baten etxea	8	34,8
Bikotearen etxea	6	26,1
Gurasoen etxea bitan zatituta	3	13,0
Baserria zatitu	2	8,7
Bajera etxebizitza bihurtu	2	8,7
Ganbara bat etxebizitza bihurtu	1	4,3
Harrera etxea	1	4,3
Guztira	23	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Gaur egun zein erregimenetan bizi den

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Jabetzan	71	60,7
Errentan	32	27,2
Emandakoa	3	2,3
Beste egoera	11	9,8
Guztira	117	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Nola beste

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Gurasoena da etxea	4	44,4
Familiakide batena da	3	33,3
Bikotearena da	2	22,2
Guztira	9	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Noiztik bizi den gaur egungo etxebizitzan

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
10-19 urte	3	2,2
5-9 urte	25	21,9
3-4 urte	25	21,5
2 edo gutxiago	62	54,3
Guztira	115	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Bizi diren etxebizitzan gustura dauden, aspektu ezberdinetan

	Oso gustura	Nahiko gustura	Ez oso gustura	Batere gustura ez
Kokapena edo auzoa	82,6	14,9	2,6	0,0
Etxea bera (tamaina, egoera orokorra,...)	66,1	26,4	7,5	0,0
Prezioa (alokairua edo hipoteka)	40,4	42,7	13,8	3,1

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Etxebizitza erosita dutenek, erostearen zergatia

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Alokairua hipoteka baino garestiagoa edo antzeko zen hilero	15	23,8
Alokairuak oso garestiak dira	11	17,5
Aukera ona suertatu zitzaielako	11	17,5
Babes Ofizialekoa tokatu zitzaiten erosteko	7	11,1
Jabetzan izan nahi zutelako	5	7,9
Alokairua dirua botatzea da	4	6,3
Familiak lagundu zien diruz	4	6,3
Familiakide bati erosi zioten, merkeago	3	4,8
Beste	3	4,8
Guztira	63	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Alokairuan bizitzeko arrazoi ezberdinen eragina

	Zerikusi handia	Zerikusi ertaina	Zerikusi txikia	Bat ere zerikusirik ez
Ez zeukan etxebizitza erosteko behar beste diru	74,9	19,8	0,0	5,3
Ez zuen kreditu bat ordaintzeko hipotekatu nahi	58,8	27,4	6,0	7,8
Etxebizitzaren zein errentaren baldintzak aukera ona ziren (errenta zaharrak,...)	34,1	43,9	13,4	8,6
Errentak mugikortasun handiagoa eskaintzen du	25,8	37,2	29,6	7,4
Behin-behineko aukera izan zen, erosteko ahalmena izan bitartean	23,6	32,4	27,3	16,6

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Errentan daudenei, modu horretan jarraitu nahi duten

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Errentan jarraitu	15	48,4
Erosi	14	44,4
Ez daki	2	7,1
Guztira	32	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Urtebeteko epean gurasoen etxera bueltatzeko aukerak zein diren

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Segur aski, aukera asko daude	1	1,1
Ez dut uste, aukera gutxi daude	39	35,1
Seguruenik ez, ez dago batere aukerarik	71	63,9
Guztira	112	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



2.2.4. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK: ETXEBIZITZA ALDATZEKO BEHARRA DUTENAK

Emantzipatuta dauden gazteen artean, gehiengo handiak (% 94,2) bere etxebizitzan bizitzen jarraitzeko asmoa adierazi du. Gainerako % 5,8a aldaketa beharrean daude eta beste etxebizitza baten bila ari da. Kopuru absolutuetara ekarrita, Oiartzunen 47 herritar gazte etxebizitza aldatzeko beharrean daudela esan daiteke.

Aldaketa beharrean dauden horiek sexuaren arabea paretsu daude eta adin-tartearen arabera hamarretik zortzi (% 79,0) 30 eta 35 urte artekoa da. Beste % 21,0a 24 eta 29 urtekoa. Bizilekuari dagokionez, ia erdiak (% 44,7) Elizalde-Erdialdean bizi dira gaur egun, beste hainbeste Altzibarren eta gainerako % 11,7 Arraguan. Bestetik, jaiolekuari dagokionez, gehiengoa Oiartzundik kanpo jaiotakoa da.

Aldaketaren beharrean dauden gazteen artean erdia baino gehiago hiru edo lau kideko etxean bizi da. Besteak 5 pertsonatik gorako etxeetan. Orokorrean, ikasketa maila ertainekoak dira, gehienak lanean dabiltza (% 80,0) eta Oiartzungo herritarren batez besteko ahalmen ekonomikoa edo txikiagoa dutela adierazi dute

Etxebizitza aldatzeko beharra dutenen ia erdia (% 43,6) errentan bizi da eta beste % 34,0 erositako etxe batean. Batez ere etxearen prezio altua da aldatzeko beharra sortzen diena (% 54,5). Beste kasu batzuetan etxea txiki geratu zaiela (% 22,9) edota etxea jabetzan izateko nahia (% 22,3) aipatu dira

Nolako etxebizitza behar duten galdetuta, aldaketa beharrean daudenak orokorrean etxebizitza nahiko handien bila dabiltza, denek esan dute 75 m2 baino handiagoa beharko luketela. Erdiak sukaldea eta bainugelaz aparte hiru logela behar dituztela adierazi dute eta beste erdiak lau gela. Kontutan hartu behar da, denak hiru edo kide gehiagoko 'familiak' edo unitateak direla eta askok etxea aldatu nahi dutela txiki geratu zaielako

Beren beharretara egokituko den etxea eskuratzeko, denak daude prest Oiartzun utzi eta beste udalerri batera joateko. Oiartzun barruan galdetuta, gehienak (% 77,3) auzune handienetan bizitzeko prest daude (Elizalde, Altzibar, Ugaldetxo eta Arragua) eta prestutasun hori gutxitzen joaten da auzune txiki eta urrutiagokoak aipatzen direnean

Bestalde, etxebizitza aldatzeko beharrean dauden oiartzuarren erdia baino gehiagok (% 56,4) etxea erosi nahiko luke eta beste % 43,6k alokairua du nahiago

Emantzipatutako gazteen artean, etxebizitza aldaketa beharra dutenak eta honen bila dabiltzanak

	Ehunekoa (%)	Estrapolatuta
Bai, aldaketa beharra dute	5,8	47
Aldaketa beharrik ez	94,2	764
Guztira	100,0	811

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Sexua

	Ehunekoa (%)
Emakumezkoa	43,6
Gizonezkoa	56,4
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Adin tartea

	Ehunekoa (%)
16 eta 23 urte artean	,0
24 eta 29 urte artean	21,0
30 eta 35 urte artean	79,0
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Bizilekua

	Ehunekoa (%)
Elizalde- Erdialdea	44,7
Altzibar	43,6
Arragua	11,7
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Etxeko kide kopurua

	Ehunekoa (%)
Hiru edo lau kide etxean	55,0
Bost kide edo gehiago etxean	45,0
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Ahalmen ekonomikoa (subjektiboa)

	Ehunekoa (%)
Oiartzungo batez bestekotik gora	14,3
Oiartzungo batez bestekoaren pare	28,6
Oiartzungo batez bestekotik behera	57,1
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Jaiolekua

	Ehunekoa (%)
Oiartzunen	22,3
Gipuzkoako beste udalerri batean	21,0
Amerikan	34,4
Afrikan	22,3
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Ikasketa maila

	Ehunekoa (%)
Ikasketarik ez edo oinarrizko ikasketak	21,0
Erdi mailako ikasketak (Batxilergoa, lanbide heziketa)	56,7
Maila altuko ikasketak (Diplomaturatik gorakoak)	22,3
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Lan egoera

	Ehunekoa (%)
Lanean	79,0
Langabezian	21,0
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Euskara gaitasuna

	Ehunekoa (%)
Ondo ulertu eta hitz egin	22,3
Hitz egin nekez baino ulertu ondo	44,0
Ez hitz egin ezta ulertu gabe	33,7
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Gaur egungo etxebizitzaren erregimena

	Ehunekoa (%)
Jabetzan	34,0
Errentan	43,6
Beste egoera	22,3
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Bizi diren etxebizitzan gustura dauden, aspektu ezberdinetan

	Oso gustura	Nahiko gustura	Ez oso gustura	Batere gustura ez
Kokapena edo auzoa	88,7	0,0	11,3	0,0
Etxea bera (tamaina, egoera orokorra,...)	88,7	0,0	11,3	0,0
Prezioa (alokairua edo hipoteka)	56,0	0,0	23,0	21,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Zenbateko aldaketa beharra duen

	Ehunekoa (%)
Behar handia	54,6
Nahiko beharra	33,7
Behar txikia	11,7
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Beharrean daraman denbora

	Ehunekoa (%)
Urtebete baino gutxiago	45,4
1 eta 2 urte bitartean	54,6
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Etxebizitza aldaketa beharra zergatik duen

	Lehen arrazoia	Bigarren arrazoia	Indizea
Prezio altuegia	43,3	22,3	54,5
Tamaina ez egokia (Etxebizitza txikia gelditu zaie)	11,7	22,3	22,9
Etxebizitza jabetzan izateko nahia	22,3	0,0	22,3
Kokapen desegokia (auzo ez gustokoa, urrundua...)	11,3	11,3	17,0
Bizitzeko baldintza txarrak	0,0	21,0	10,5
Beste arrazoiren bat	11,3	23,0	22,9

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Zenbat metro koadroko etxebizitza behar duten

	Ehunekoa (%)
100 m2 baino gehiago	11,7
91 eta 100 m2 bitartean	33,7
76 eta 90 m2 bitartean	43,3
Ez daki	11,3
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Zenbat gelako etxebizitza behar duten (bainugela eta sukaldeaz aparte)

	Ehunekoa (%)
3 gelakoa	54,6
4 gelakoa	45,4
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Beharretara egokitzen den etxea bada, nora joateko prest

	Ehunekoa (%)
Oiartzundik kanpora	100,0
Elizalde-Erdialdera	77,3
Altzibarra	77,3
Ugaldetxora	77,3
Arraguara	77,3
Iturriotzera	65,6
Karrikara	55,7
Ergoienera	43,3
Gurutzera	27,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Zein erregimenetan bilatzen ari den

	Ehunekoa (%)
Jabetzan	56,4
Alokairuan	43,6
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Jabetzan nahi dutenek, ordaindu dezaketen salneurri altuena

	Ehunekoa (%)
270.000 eta 299.999 euro bitartean	20,8
180.000 eta 209.999 euro bitartean	39,6
120.000 eta 159.999 euro bitartean	39,6
Guztira	100,0
Batez bestekoa	191.922 euro

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Etxebizitzarako hilean bideratu dezaketen diru kopurua (alokairua edo hipoteka)

	Ehunekoa (%)
450-599 euro bitartean	36,6
300 eta 449 euro bitartean	63,4
Guztira	100,0
Batez bestekoa	430 euro

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



2.2.5. EMANTZIPATU BEHARREAN DAUDEN GAZTEAK: ETXEBIZITZA BATEN BEHARRA DUTENAK

Gurasoen etxean bizi diren gazteen artean, gehiengo handiak (% 88,9) egungo egoeran bizitzen jarraitzeko asmoa adierazi du. Gainerako % 11,1a emantzipazio beharrean dago eta gurasoen etxea uzteko beste etxebizitza baten bila ari da. Kopuru absolutuetara ekarrita, Oiartzunen 136 herritar gazte independizatzeko etxebizitza beharrean daudela esan daiteke

Emantzipatu beharrean dauden horiek sexuaren arabera paretsu daude eta adin-tartearen arabera hamarretik zortzi (% 80,2) 24 eta 29 urte artekoa da, batez beste 28,6 urtekoa. Beste % 15,8a 30 eta 35 urtekoa. Bizilekuari dagokionez, laurdena (% 26,0) Elizalde-Erdialdean bizi da gaur egun, beste hainbeste Altzibarren eta gainerakoak Ugaldetxo, Iturriotz eta Arraguan (bakoitza % 15 inguru). Bestetik, jaiolekuari dagokionez, gehiengoa Oiartzunen jaiotakoa da (% 73,3) eta ia denak hiru edo lau kideko etxeetan bizi dira.

Etxebizitza eskuratzeko beharra dutenen ia erdia (% 46,0) urtebete baino gutxiago dago egoera horretan eta beste % 32,8 urtebete eta bi urteren artean. Hau da, beharra handia den arren, gehiengoa ez dago egoera horretan aspalditik. Gazte hauen % 12,7k adierazi du independizatu nahi eta ezinean 4 urte baino gehiago daramatzala.

Emantzipatu nahi eta ezinean zergatik dauden galdetuta, arrazoi nagusia (% 70,7ak aipatu du) alokairuaren prezioak altuegiak direlako da. Ondoren aipatu dira 'egoera ekonomiko inestablea' (% 36,1) eta 'salgai dauden etxeen prezio altuegiak' (% 21,4)

Emantzipatu nahien dauden gazte oiartzuar hauen hamarretik sei (% 60,3) binaka joango lirateke bizitzera, bikotearekin. % 21,3ak bakarrik bizi nahiko luke eta % 18,5ek hiru laguneko taldean. Hortaz 136 gazte etxe bila dabiltza eta nahikoa litzake eskaera hau asetzeko 78 etxebizitzarekin

Nolako etxebizitza behar duten galdetuta, orokorrean etxebizitza nahiko txikien bila dabiltza. Erdiak adierazi du 40-75 m2ko etxebizitza batekin nahikoa duela eta beste erdiak 75-90 m2koa bilatzen du. Gehienek (% 56,7) sukaldea eta bainugelaz aparte bi logela behar dituztela adierazi dute, % 7,5ek gela bakarra eta beste % 35,8k hiru edo lau gela

Beren beharretara egokituko den etxea eskuratzeko, erdiak prest daude Oiartzun utzi eta beste udalerri batera joateko (% 48,8). Oiartzun barruan galdetuta, gehienak prest leudeke Iturriotzera joateko (% 77,1) eta ondoren Elizalde-Erdialdera (% 71,8), Ugaldetxora (% 71,0), Ergoienera (% 60,1) eta Altzibarra (% 57,4)

Bestalde, etxebizitza aldatzeko beharrean dauden oiartzuarren ia bi herenek (% 65,4) etxea alokairuan hartuko luke eta beste % 30,4k nahiago du erosi. Alokairuaren aldeko jarreren artean, nagusiki 'kreditu bat ordaintzeko hipotekatu nahi eza' aipatzen da eta baita 'etxebizitza erosteko behar beste diru ez izatea' ere (biak % 75,2)

Gurasoen etxean bizi dira eta independizatu nahi dutenak

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)	Estrapolatuta
Bai	20	11,1	136
Ez	160	88,9	1.091
Guztira	180	100,0	1.227

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Sexua

	Ehunekoa (%)
Emakumezkoa	49,8
Gizonezkoa	50,2
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Adin tartea

	Ehunekoa (%)
16 eta 23 urte artean	3,9
24 eta 29 urte artean	80,2
30 eta 35 urte artean	15,8
Guztira	100,0
Batez besteko adina	28,6

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Bizilekua

	Ehunekoa (%)
Elizalde- Erdialdea	26,0
Altzibar	24,0
Ugaldetxo	18,0
Iturriotz	16,1
Arragua	15,9
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Etxeko kide kopurua

	Ehunekoa (%)
Bi kide etxean	5,9
Hiru edo lau kide etxean	94,1
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Ahalmen ekonomiko subjektiboa

	Ehunekoa (%)
Oiartzungo batez bestekotik gora	19,5
Oiartzungo batez bestekoaren pare	44,1
Oiartzungo batez bestekotik behera	36,5
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Jaiolekua

	Ehunekoa (%)
Oiartzunen	73,3
Gipuzkoako beste udalerri batean	15,9
Euskal Herriko beste herrialde batean	5,0
Amerikan	5,9
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Ikasketa maila

	Ehunekoa (%)
Ikasketarik ez edo oinarrizko ikasketak	7,9
Erdi mailako ikasketak (Batxilergoa, lanbide heziketa)	54,2
Maila altuko ikasketak (Diplomaturatik gorakoak)	31,8
Besterik	6,2
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Lan egoera

	Ehunekoa (%)
Lanean	63,3
Langabezian	10,6
Ikasle	4,0
Langilea + ikaslea	22,1
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Euskara gaitasuna

	Ehunekoa (%)
Ondo ulertu eta hitz egin	94,1
Hitz egin nekez baino ulertu ondo	5,9
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Zenbateko eskuratze beharra

	Ehunekoa (%)
Behar handia	26,3
Nahiko beharra	54,1
Behar ertaina	19,6
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Beharrean daraman denbora

	Ehunekoa (%)
Urte 1 baino gutxiago	46,0
1 eta 2 urte bitartean	32,8
2 eta 4 urte bitartean	8,5
4 urte baino gehiago	12,7
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Emantzipazioa ez lortzeko arrazoi nagusiak

	1go arrazoia	2.arrazoia	Indizea
Alokairuaren prezioak altuegiak	60,0	21,5	70,7
Egoera ekonomiko inestablea	21,5	29,1	36,1
Salgai dauden etxeen prezio alltuegiak	14,6	13,5	21,4
Alokairuko etxeen egoera txarra	3,9	27,5	17,7
Ez dut/ditut topatu pertsona(k) egokia(k) topatu etxetik joateko	0,0	4,4	2,2
Alokiruan dauden etxeen eskaintza txikia	0,0	3,9	2,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Urtebeteko epean emantzipatzeko aukerak

	Ehunekoa (%)
Segur aski, aukera asko daude	35,9
Agian bai, nahiko aukera daude	51,5
Ez dut uste, aukera gutxi daude	9,5
Ez daki	3,1
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Emantzipatzeko beharraren zergatia

	1go arrazoia	2. arrazoia	Indizea
Familiatik emanzipatzea bere kabuz bizitzeko	56,1	38,8	75,5
Bikotean bizitzea	43,9	20,7	54,3
Lana dela eta lekua aldatzea	0,0	5,0	2,5
Beste batzuk	0,0	9,5	4,7
ED / EE	0,0	26,0	13,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Zenbat pertsona joango lirateke bizitzera

	Ehunekoa (%)	136 pertsona	78 etxebizitza
Bakarrik	21,3	29	29
Bi pertsona	60,3	82	41
Hiru pertsona	18,5	25	8
Guztira	100,0	136	78

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Zenbat metro koadroko etxebizitza behar duen

	Ehunekoa (%)
76 eta 90 m2 bitartean	47,0
61 eta 75 m2 bitartean	28,5
41 eta 60 m2 bitartean	12,5
40 m2 baino gutxiago	3,1
Ez daki	8,9
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Zenbat gelako etxebizitza behar duen (bainugela eta sukaldeaz aparte)

	Ehunekoa (%)
Gela bakarra	7,5
Bi gela	56,7
Hiru gela	31,9
Lau gela	3,9
Guztira	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Beharretara egokitzen den etxea bada, nora joateko prest

	Ehunekoa (%)
Iturriotz	77,1
Elizalde-Erdialde	71,8
Ugaldetxo	71,0
Ergoien	60,1
Altzibar	57,4
Arragua	55,0
Oiartzundik kanpo	48,8
Gurutze	39,1
Karrika	36,5

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Zein erregimenetan bilatzen ari den

	Ehunekoa (%)	136 pertsona
Alokairuan	61,3	83
Jabetzan	26,3	36
Berdin die	4,1	6
Beste modu bat	8,4	11
Guztira	100,0	136

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Alokairuan bizi nahi izateko arrazoiak

	Zerikusi handia	Zerikusi ertaina	Zerikusi txikia	Bat ere zerikusirik ez
Ez zuen kreditu bat ordaintzeko hipotekatu nahi	75,2	19,2	5,6	0,0
Ez zeukan etxebizitza erosteko behar beste diru	75,2	16,8	8,0	0,0
Errentak mugikortasun handiagoa eskaintzen du	58,6	33,5	0,0	8,0
Etxebizitzaren zein errentaren baldintzak aukera ona ziren (errenta zaharrak,...)	42,4	32,9	15,1	9,6
Behin-behineko aukera izan zen, erosteko ahalmena izan bitartean	32,2	5,5	53,5	8,8

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Jabetzan nahi dutenek, ordaindu dezaketen salneurri altuena

	Ehunekoa (%)
270.000 eta 299.999 euro bitartean	25,4
240.000 eta 269.999 euro bitartean	17,7
150.000 eta 179.999 euro bitartean	41,0
120.000 euro baino gutxiago	16,0
Guztira	100,0
Batez bestekoa	204.199

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Etxebizitzarako hilean bideratu dezaketen diru kopurua (alokairua edo hipoteka)

	Ehunekoa (%)
600 eta 749 euro bitartean	19,1
450-599 euro bitartean	30,9
300 eta 449 euro bitartean	9,9
150 eta 299 euro bitartean	32,0
150 euro baino gutxiago	8,1
Guztira	100,0
Batez bestekoa	412

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



2.2.6. OIARTZUNGO GAZTEAK ETA ETXEBIZITZAREN INGURUKO IRITZI ETA JARRERAK

Oiartzungo gazteen erdia baino gehiagok uste du (% 54,5) etxebizitzarena herriko arazo larrienetarikoa dela eta hamarretik zortziren ustez (% 83,2) Oiartzungo gazteek etxebizitza bat eskuratzea oso edo nahi zaila da. Bukatzeko, gazteen % 80arentzat herrian etxebizitza hutsak egotea arazo bat da

Etxebizitza Bulegoaren inguruan galdetuta, hamarretik hiruk (% 29,9) ezagutzen du edo zerbait entzun du eta ezagutzen dutenen artean, heren batek (% 37,3) bisitatu du bulegoa. Hau da, gutxi gora behera Oiartzungo gazteen % 10 gerturatu da Etxebizitza Bulegora. Kontutan hartu behar da inkesta egin zen garaian pare bat hilabete zeramatzala martxan bulegoak. Gainera, inkestatuen hamarretik seik (% 59,1) bulegoaren informazio gehiago nahi duela adierazi du

Bukatzeko, etxebizitzaren inguruan martxan jarri daitezken zenbait neurriren inguruan galdetu zaie gazte oiartzuarrei, batetik, Oiartzunen neurri hauek funtzionatuko luketen jakiteko eta bestetik neurri hauek inkestatuentzat pertsonalki soluzio bat diren ala ez jakiteko

Bi galderetan eman diren emaitzak antzekoak izan dira. Gazteentzako 'Emantzipazio Errenta' bat martxan jartzeak Oiartzunen funtzionatuko lukeela adierazi du gazteen % 96,6k eta % 89,7arentzat soluzio pertsonal bat suposatuko luke. Ondoren, 'Babes Ofizialeko Etxebizitzak alokairuan jartzea' eta 'Etxejabeei laguntzak ematea beren etxebizitza hutsa merkatura ateratzeko'

Oiartzungo arazoen artean, etxebizitzarena non kokatzen duten

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Arazo larriena da	23	7,7
Arazo larrieneteakoa da	141	46,8
Ez da arazo larrienetako bat	78	25,8
Ez da arazo bat	28	9,2
ED / EE	32	10,5
Guztira	301	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Oiartzunen gazteek etxebizitza bat eskuratzeko duten zailtasun maila

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso zaila da	128	42,6
Nahiko zaila da	122	40,6
Nahiko erraza da	31	10,4
Oso erraza da	1	0,3
ED / EE	18	6,0
Guztira	301	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Etxebizitza Bulegoa ezagutzen duten

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai, ezagutzen du	70	24,1
Zerbait entzun du	17	5,8
Ez du ezagutzen	204	70,1
Guztira	290	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Etxebizitza Bulegora gerturatu diren

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai	32	37,3
Ez	55	63,2
Guztira	87	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Etxebizitza Bulegoaren inguruko informazio gehiago nahi duten

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai	175	59,1
Ez	121	40,9
Guztira	297	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Oiartzunen etxebizitza hutsak egotea arazo bat den

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai, arazo bat da	243	80,8
Ez, ez da arazo bat	39	13,1
ED / EE	18	6,1
Guztira	301	100,0

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Etxebizitzaren inguruan martxan jarri daitezken neurriek Oiartzunen funtzionatuko luketen

	Ziur funtzionatuko lukeela	Zalantza	Ziur ez lukeela funtzionatuko
Gazteei emantzipazio Errenta (hilabetero laguntza ekonomikoa) ematea alokairurako	96,6	2,4	1,0
Herritarrei Babes Ofizialeko etxebizitzak eskaintzea, alokairuan	87,6	9,1	3,4
Etxebizitza hutsak merkatura atera daitezen bultzatzea etxejabeei laguntzak emanez	78,6	18,1	3,3
Eraikinen beheko solairuetako zenbait bajera etxebizitza gisa erabil ahal daitezen bultzatzea	61,8	24,6	13,6
Herritarrei Babes Ofizialeko etxebizitzak eskaintzea, salmentan	58,0	29,7	12,3
Herritarren artean etxeak modu kooperatiboan eraikitzeko laguntzak ematea	57,3	36,2	6,5
Etxebizitza hutsak merkatura atera daitezen, etxea hutsa duten jabeak 'estutzea' zerga bidez	42,5	31,2	26,3

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



Etxebizitzaren inguruan martxan jarri daitezken neurriak soluzio bat diren pertsonalki inkestatuarentzat

	Soluzio bat da	Zalantza	Ez da soluzio bat
Gazteei emantzipazio Errenta (hilabetero laguntza ekonomikoa) ematea alokairurako	89,7	3,0	7,3
Herritarrei Babes Ofizialeko etxebizitzak eskaintzea, alokairuan	79,0	8,7	12,2
Etxebizitza hutsak merkatura atera daitezen bultzatzea etxejabeei laguntzak emanez	64,2	17,3	18,6
Eraikinen beheko solairuetako zenbait bajera etxebizitza gisa erabil ahal daitezen bultzatzea	47,3	21,4	31,3
Herritarrei Babes Ofizialeko etxebizitzak eskaintzea, salmentan	44,5	24,9	30,6
Herritarren artean etxeak modu kooperatiboan eraikitzeko laguntzak ematea	44,1	32,3	23,7
Etxebizitza hutsak merkatura atera daitezen, etxea hutsa duten jabeak 'estutzea' zerga bidez	38,7	24,8	36,5

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016



2.2.7. PROPOSAMEN GEHIAGO

Beste proposamenak

	Maiztasuna
Okupazioa	6
Gazteentzat etxebizitzak gune komunitarioak eta espazio pribatuak dituztena	6
Alokairu merkeagoak	5
Alokairu soziala gehiago bultzatu	5
Etxebizitza hutsen jabeekin hitz egin / negoziatu konfidentzialtasunean, merkatura ateratzeko	3
Tamaina txikiagoko etxebizitza egitea	3
Alokairuaren prezioa kontrolatzea udalak	2
Udalarenak diren eraikin/etxe gazteei bizitzeko aukera eman	2
18-24 urteko gazteentzat alokairurako diru laguntzak	1
Auzolanean alkilerra ordaintzea	1
Baserriak bitan banatzea	1
Babes Ofizialeko Etxebizitza gehiago egin	1
Etxe gehiago eraiki	1
Etxe kooperatibak bultzatu	1
Webgune bat sortu informazioa trukatzeko	1

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016

2.2.8. APORTAZIOAK

Aportazioak

10 urte zain pasa eta gero erosi ahal izan dut etxea
A los jóvenes les falta valor para irse de casa de los padres
Etxebizitzaren gaia ez da Oiartzunen arazoa bakarrik. Arazoa maila altuagoan dago, generalagoa da
Alokairu merkeak bultzatzea
Alokairuaren prezioa jeistea
Alokairu sozila bultzatzea eta etxeen prezioak jeistea
Alokairua bultzatu
Alokairua bultzatu. Ni alokairura joango nintzateke
Alokairuak merkeagoak izatea
Alokairuaren laguntzak sustatzea
Babes Ofizialeko Etxebizitzak alokairuan sustatu, alkilerren laguntzak eta kooperatibei laguntzak ere bai
Arazoa ez da etxebizitzarena, ekonomikoa baizik
Ayudas para empezar, tipo papeles,…
Ayudas sociales ya
Babes Ofizialeko Etxebizitzak saldu beharrean alokairuan eskuragarriak izan beharko lirateke. Etxe hutsen jabe partikularrak estutzea ez! Bankuak estutu behar dira!
Babes Ofizialeko Etxebizitzek prezio egokia behar dute. Olaldekoetan askok atzera egin zuten
Diru laguntza gehiago
Epe laburreko etxeak alkilerrean prezio merkean
Ergoiengo auzoan ez dago Babes Ofizialeko Etxebizitzarik, ondo legoke zerbait ahalbideratzea
Errenta soziala bultzatzea herrian
Esta bien que los jóvenes se emancipen y quieran vivir sin ser una carga para sus padres
Etxebizitza Bulegoak ez dakit turismo bulego modura funtzionatzen duen, hau da, eskaparate bat den edo hortik kudeatuko diren etxebizitzaren inguruko gaiak. Gainera Babes Ofizialeko Etxebizitzak babes ofizialeko prezioak eduki beharko lukete
Etxe gehiago egitea
Etxe hutsak dituztenei multa moduko bat jarri
Etxeak birmoldatzeko erraztasunak jarri
Etxeak merkeago jartzea
Etxebizitza Bulegoak etxetik joan nahi duen jendea kudeatzea eta pixukidea bilatzen laguntzea, pixua konpartitzeko
Etxebizitza Bulegoko informazioa interesgarria
Etxebizitza kolektiboak bultzatu eta lan tokietatik gertu etxebizitzak langileentzat
Gazteak lagunekin batera bizitzea
Gazteei etxe zaharrak erosteko laguntzak
Gazteei laguntzak bideratzea lagungarria, pausoa eman dezeten
Gazteentzat etxe hutsak lortu behar dira
Gizarte juxtuago bat beharko litzake
Incentivar el alquiler social
Jende helduak etxea konpartitzea. Asko bakarrik bizi baitira
Laguntza gehiago behar dira
Los inmigrantes tienen demasiadas ayudas respecto a los de Oiartzun en la problemática de la vivienda. Se deberían mirar eso cuanto antes.
Multa moduko bat jartzea 2. etxea hutsa dutenei
Etxe hutsak okupatzea
Prezioak gaur egun lotsagarriak dira
Udalak laguntza gehiago ematea

Iturria: Aztiker, "Oiartzungo gazteen etxebizitza premia eta eskariari buruzko inkesta"; 2016

3. JARDUNALDIAK (2016-XII-16)

Atal honetan "***Oiartzungo gazteak eta etxebizitza proiektuak 2016***" ikerketaren amaieran egindako jardunaldiaren memoria jasotzen da. Honakoak izan dira jardunaldien helburuak: 2016ko udazkenean egindako ikerketa kualitatibo eta kuantitatiboan ateratako emaitzak sozializatu, Udala etxebizitzaren inguruan egiten ari den lanketa aurkeztu, alternatiba eta eredu desberdinen inguruan hausnartu eta gazteen ideiak eta ekarpenak jaso.

XEHETASUN TEKNIKOAK:

Jardunaldien data: 2016ko abenduaren 16a, ostirala

Jardunaldien lekua: Oiartzungo Udaleko areto nagusia.

Bertaratutakoak: 20 pertsona, 10 emakume eta 10 gizon.

Udaleko ordezkariak: Jexux Leonet (alkatea), Eneritz Arbelaitz (alkateordea), Agurtzane Lekuona (zinegotzia), Enekoitz Markos (zinegotzia) eta Saioa Etxebeste (Etxebizitza bulegoko teknikaria).

Dinamizatzaileak: Ekhi Zubiria, Markel Ormazabal eta Enara Eizagirre.

3.1. SARRERA

Eneritz Arbelaitzek, Oiartzungo alkateordeak, ongi etorria eman die bertaratutako gazteei eta Jardunaldiaren kokapena egin du.

Oiartzungo Udalak azken urteetan etxebizitzaren auzia herriko beharren artean kokatu du eta bere inguruan lanketa egiten ari da.

Bide horretan, 2016. urtean hainbat pauso eman dira. Hasteko, etxebizitza hutsen kopurua eta ezaugarrien inguruko ikerketa gauzatu zen. Horren ondoren, Etxebizitza Bulegoa martxan jarri da etxebizitzaren inguruko informazioa, orientabidea eta kudeaketa egiteko. Azkenik, ikerketa bat egin da Oiartzungo gazteen etxebizitza behar eta interes errealak ezagutzeko.

Jardunaldi hauek gazteen eta etxebizitza proiektuen inguruko ikerketaren azken urratsa dira. Bertako helburua da emaitzak aurkeztea, Oiartzunen egiten ari den lanketa ezagutaraztea eta etxebizitza eredu eta proiektu desberdinen inguruan herriko gazteekin hausnartzea.

Ondoren, Jardunaldien egitaraua azaldu du:

- Oiartzungo azterketaren emaitzen aurkezpena.
- Etxebizitza esperientzien eta ereduen aurkezpenak:
  - Gurutzeko etxebizitza kooperatiba.
  - Errezilgo auzoetxea.
  - Deventerreko (Herbehereak) belaunaldi-arteko esperientziaren bideoa.
- Oiartzungo Etxebizitza Bulegoaren aurkezpena.
- Herrirako proposamen eta aukeren inguruan hausnartzea.
- Ekarpenen antolaketa eta lehenestea.
- Agurra eta luntxa.

Behin hori azalduta, Ekhi Zubiria Aztikerreko teknikariari eman dio hitza ikerketaren emaitzak aurkezteko.

3.2. IKERKETAREN EMAITZAK

Jarraian, Ekhi Zubiria Aztikerreko teknikariak Oiartzungo gazteak eta etxebizitza proiektuak, 2016 ikerketaren emaitzak aurkeztu ditu. Aurkezpenerako erabilitako edukiak txosten honen emaitza nagusiak dira, ikerketa kualitatibo zein kuantitatiboak eman dituenak.

3.2.1. BERTARATUTAKOEN EKARPENAK ETA HAUSNARKETAK

Aurkezpena amaitutakoan, tarte bat ireki da bertaratutakoek beren irudipenak, hausnarketak eta ekarpenak egiteko. Horretarako, Enara Eizagirre Aztikerreko teknikariak hiru galdera luzatu ditu:

Zerk deitu dizu arreta? Zein dira Oiartzungo indarguneak? Zein dira zure kezkak?

Modu irekian eta txanda ordenatuan, bertaratutako pertsonek ekarpenak egin dituzte. Jarraian jasotzen dira azaldutako ideiak:

- ✓ Diagnosiaren azterketan, etxe beharra dutenen kategoria gisa erabili dira galdetegian etxe bila dabiltzala adierazi duten pertsonak soilik. Hausnartu da arriskua dagoela horrek errealitate guztia ez jasotzeko: izan ere, posible da etxe beharra duen pertsona bat bila ez aritzea une honetan.

- ✓ Ikerketaren emaitzetatik atentzioa deitu du, era berean, etxe bila dabiltzanen artean dauden bi profil berezituen artean. Izan ere, bi taldeak oso nabarmen markatuak atera dira:
    - Independizatzeko nahia dutenen gehiengo nabarmena 25-29 urte bitartean dago eta herrian gelditu nahi du bizitzen, bikotearekin, lagunekin edo bakarrik
    - Dagoeneko independizatuta dagoena eta aldaketa bila dabilena, etxearen ezaugarriengatik dabil aldatu nahian, eta berdin zaio Oiartzundik kanpo izanda ere. 30 urtetik gorakoak dira eta Oiartzundik kanpo jaioak.

- ✓ Etxebizitzaren inguruko kezka nagusi gisa honakoa adierazi dute bertaratutako gazteek: oraindik gurasoen etxean bizi eta independizatzeko nahia izanda, ezin hala egin ahal izatea eta ez eskuragarri ikustea aukera hori. Azken batean, gaurko errealitatea da lan merkatuak erabat ezegonkorra dela eta lan egindako ordu kopurua (eta soldata) zein lanpostuaren kokalekua bere asko aldatzen dela, beraz, epe ertain-luzera planak egitea oso zaila dela.

- ✓ Hausnartu da hasiera batean, ikerketak adierazi duen moduan, ez dela Oiartzundik beste herri batera joan nahi. Hala ere, herriko alokairuen prezioek kezka sortzen dute, eta beste aukerarik ezean, oiartzuarrek bertatik alde egiteko arriskua ikusten dute, nahiz eta pertsonalki eta herriarentzat nahi ez den irtenbide gisa sumatu.

- ✓ Aurreko gogoetarekin lotuta, aipatu da ezinbestekoa dela gazteak mugitzea alternatiba eta irtenbide bila. Etxebizitzaren errealitatea zaila dela ikusten da, baina horren aurrean gazteek proiektuak sortzeko aukera eta ardura dutela hausnartu da. Horren irudi gisa, gaurko gazteen kopuru baxua aipatu da.

- ✓ Azken gogoeta hori osatuz, azken hamarkadetan gizarteak bizi izan dituen aldaketek etxebizitzaren gaian eta gazteen bizitza proiektuetan oro har izan duen eragina aipatu da. Hain zuzen, aldaketa sozioekonomikoek eraginda, bizitzaren linealtasuna eta planifikazio gaitasuna apurtu egin dira da, izan lan munduan edota arlo pribatuagoan edo sentimentalean. Horrekin, luzera begirako proiektuak osatu eta aurrera eramateko iniziatibak (esaterako, etxea erostea edo BOE batean sartzea) sortzeko gaitasuna mugatu egin da. Eta honi gehitzen badiogu gaur egungo egoera ekonomikoa, ez da erraza ikusten etxebizitza proiektu bat aurrera eramatea.

3.3. EREDU DESBERDINAK

Behin Oiartzungo ikerketaren emaitzak aurkeztuta eta horien aurreko hausnarketekin jarraituz, etxebizitza esperientzien inguruan dauden iniziatiba eta eredu desberdinak aurkeztu dira. Hiru esperientzia desberdin ekarri dira: Oiartzungo Gurutze auzoko etxebizitza kooperatiba, Errezilgo auzoetxea eta Herbeheretan kokatutako belaunaldi arteko egoitza baten esperientzia.

Etxebizitza beharra asetzeko eredu eta egon izan diren proiektu desberdinak islatzea izan da helburua, gai honi dagokionez zein aukera desberdin egon daitezkeen eta sortu diren irudikatzeko. Aukeratu diren proiektuak Oiartzungo errealitaterako interesgarriak direlakoan ekarri dira: haietako bat herriko esperientzia da; bigarrena Gipuzkoako beste herri batean gazteek beren iniziatibaz duela denbora gutxi osatutako proposamena; azkena, berriz, ikerketan hainbat aldiz aipatu den interesgune baten harira ekarri da, belaunaldi arteko aukerak ikustea, hain zuzen.

Jarraian aurkezten dira, labur, aurkeztutako hiru proiektuen ezaugarri nagusiak:

3.3.1. OIARTZUN, GURUTZEKO ETXEBIZITZA KOOPERATIBA

Arroxa Lizaso oiartzuarrak aurkeztu du **Oiartzungo Gurutze auzoko etxebizitza kooperatibaren** esperientzia.

90eko hamarkadan kokatutako proiektua da honakoa. Oiartzungo auzo bateko hainbat gaztek etxebizitza bat eskuratu nahi zuten, merkatu librean eskuratuta baino modu ekonomikoagoan.

Behar horri erantzuteko aukera bila hasi ziren. Hala, Udalak auzoan zituen lursail publiko batzuetan Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzeko aukerari heldu zioten. Proiektua aurkeztu eta garatu zen.

Behin eraikina eginda, auzotar gazte guztiei ireki zitzaien bertan etxebizitza bat eskuratzeko aukera. Zozketa bidez izendatu ziren bertan bizitzen jarriko ziren pertsonak. Denboraren poderioz, haietako batzuk aldatzen joan dira.

3.3.2. ERREZIL, AUZOETXEA

Izaro Zinkunegi errezildarrak aurkeztu du **Errezilgo Auzoetxearen edo mediku etxearen** egitasmoa.

2014. urtean martxan jarritako proiektua da honakoa. Errezilgo bi gaztek independizatu nahi zuten baina baliabide ekonomikorik ez zuten horretarako. Herriko mediku etxea izandakoa hutsa zegoen, Udalaren jabetzako eraikina zena. Horren aurrean, bi gazteek eraikin hura auzoetxe bihurtzeko proiektua aurkeztu zioten Udalari herria biziberritzeko ekimenak eta zerbitzuak bertan antolatzearen truke. Izan ere, Errezil herri txikia da eta bertako biztanleek inguruko herrietara joateko ohitura dute.

Auzoetxearen espazio batzuk herriko jarduerak, ekimenak eta zerbitzuak egiteko erabiltzen dira. Beste gune batzuk, aldiz, bertan bizitza egiteko dira. Auzoetxean bizitzearen truke, gazteek bertan ekintzak eta lanketak antolatzea eta gauzatzea eskaintzen dute: tailerrak, ikastaroak, harremantzeko espazioak, gimnaslekua... "Espeziatan" ordaintzen da alokairua.

Hasiera batean bi gazte hasi ziren proiektuarekin. Gaur egun horietako batek jarraitzen du bertan bizitzen eta, oraingoz, ez da beste inor sartu.

3.3.3. DEVENTER, BELAUNALDI ARTEKO EGOITZA

Ikerketan hainbat aldiz atera den gogoetak lotu ditu etxebizitza eta herriko belaunaldi desberdineko jendearen errealitatea: hau da, belaunaldi desberdinetako herritarren artean proiektuak gauzatzeko egon daitezkeen aukerak.

Horren ildotik, Herbehereetako Deventer herrian dagoen Humanitas egoitzaren adibidea jarri da bideo baten bidez. Adineko pertsonentzako egoitza bat zen honakoa. Zuzendariak hainbat ekintza soziokulturalak eta bizitza eskaini nahi zien bertako bizilagunei, baina ez zuen nahikoa aurrekontu horretarako.

Beraz, bertako unibertsitatearekin hitzarmena egin zuen: bost ikasleri bertan bizitzeko aukera eskaini zieten hilean 30 ordu adineko pertsonekin jarduerak egiten pasatzearen truke (alokairu moduan). Ikasleak erabaki dezake zertan igaro orduak: ordenagailua erabiltzen laguntzen, eskulan eta artisautzan, bizikletan... Horren truke, bertan logela propioa dute, ordutegi librea eta lagunak ekartzeko aukera.

Antzekotasun eta desberdintasunekin, belaunaldien arteko etxebizitza proiektu batzuk badaude eta egon izan dira Euskal Herrian ere: duela urte batzuk Donostian eskaini zen "ikasle eta pertsona helduen elkarbizitza programa, etxebizitza propioan" eta Bilbon Deustuko Unibertsitateak egun eskaintzen du "Ostatu Alternatiboa: belaunaldiarteko elkarbizitza eta elkarren laguntza". Bi programetan, Deventerreko kasuan ez bezala, etxe partikularretara bideratutako proiektuak dira. Donostiako kasuan, Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailetik bideratzen zen; Bilbokoan, Deustuko Unibertsitateko Ekintza Soziala sailetik egiten da.

3.3.4. EREDUEN INGURUKO HAUSNARKETAK

Ondoren, jardunaldietako partaideek aurkeztutako esperientzien inguruan galdetzeko eta eredu horien ezaugarriei eta bideragarritasunari buruz hausnartzeko tartea ireki da.

Bertan aipatutako ezaugarriak eta jaso diren balorazioak adierazten ditugu jarraian, erreferentzia egiten dioten gaiarekin lotuta:

- ✓ Etxebizitzaren inguruko proiektuak antolatzeko, oztopo bat topatzen da errealitatean: merkatu oso bat atzetik duen eremua da, esku pribatuek interes asko dituztenak. Erakunde publikoetatik sustatu daitezke gauzak, baina eskumena eta gaitasuna mugatua gelditzeko arriskua izaten da.

BELAUNALDI ARTEKO PROIEKTUAK

- ✓ Belaunaldi arteko proiektuek indargune bat dute: bi arazo edo errealitate soziali erantzuten die aldi berean. Izan ere, batetik, gazte ugari daude etxebizitza beharrean; bestetik, adineko pertsona asko bakarrik bizi dira. Lehenengoen etxebizitza beharra asetzen den aldi berean, bigarrenaren behar sozioafektiboak asetzen dira.

- ✓ Belaunaldi arteko proiektuen harira, galdetu da ea martxan jarri diren ekimenek funtzionatu izan duten.
  - *Erantzuna*: izaera desberdineko proiektuak egon dira martxan. Hartzaile diren ikasleen profila berdintsua izan den arren aipatutako hiru proiektuetan, entitate kudeatzailea, harrerako adineko pertsonen ezaugarriak eta testuinguruarenak desberdinak izan dira. Aldagai horien arabera, proiektu batzuk gehiago funtzionatu dute besteek baino. Oro har,

KOOPERATIBAK

- ✓ Modu desberdinak daude kooperatibak egiteko eta proiektuak gauzatzeko. Adibidez, Europa iparraldean indarra du Andel ereduak. Bertan, jabetza kooperatibarena izaten da eta pertsonek etxebizitzak erabiltzeko aukera dute, denbora mugarik gabe. Sarrera bat jartzen da hasieran (berreskuragarria) eta zentzuzko errenta ordaintzen da. Ondorioz, dauden beharren eta interesen arabera formulak sortzea izan daiteke bidea.

AUZOETXEA, ALOKAIRU DESBERDINAK

- ✓ Errezilgo auzoetxearen proiektuaren harira, galdetu da ea Oiartzungo Udalak gisa horretako proiektuak aurrera ateratzeko prestutasuna duen.

  - *Erantzuna*: lanketa beste bide batetik abiatu du Udalak eta oraingoz horrelako proiekturik ez da planteatu. Etxebizitza hutsak aztertzetik abiatu zen eta bertako jabeekin harremanetan jartzea izan zen hurrengo pausoa, horiek birgaitzen saiatzeko. Horren hurrengo pauso gisa, gazteen benetako behar eta interesak ezagutu nahi izan dira. Beraz, orain arte gisa honetako proiektuen bidea ez da jorratu. Hala ere, aukera ez da baztertzen eta prestutasuna egongo litzateke Udaletik, betiere Oiartzungo errealitatera egokitutako proiektuak badira.

- ✓ Errezilgo auzoetxeari lotuta, hainbat zehaztasuni buruz galdetu da:
  - Udala proiektu bat izanda, errotazio sistemarik planteatzen da herrian interesa duten pertsona guztiek parte hartu ahal izateko?
    Erantzuna: bai, hasiera batean Errezilgo gazteei irekitako proiektua da. Hala ere, orain arte ez da pertsona gehiagorik sartu. Bestalde, kontuan hartzekoak dira Errezilen ezaugarriak, hain justu, herri txikia dela eta gazte kopurua mugatua.

  - Oiartzunen errealitatea bestelakoa da: ez da hain herri txikia, gazte kopuru handiagoa du… Gisa horrelako proiektuak antolatzekotan, beste ezaugarri batzuk izan beharko lituzkete.
  -
  - Ideia ona iruditu da diru-sarrera finkorik ez duten pertsonen kasuan, etxebizitza beharra asetzea ahalbidetzen duelako.

- ✓ Errezilgo alokairu alternatiboa eta gisako proiektuak gauzatzeko, interesa duten pertsonek egin behar dituztela proposamenak eta ideiak garatu adierazi da. Interesgarria izan daitekeen aukera bat bilatu, garatu eta proposatu daiteke.

Eredu desberdinen inguruko ideia horiek guztiak jaso ondoren, Oiartzungo herrian dauden aukeren eta beharren inguruan hausnartzeko tartea ireki da.

3.4. ETXEBIZITZA BULEGOA

Jarraian, Oiartzunen azken hilabeteetan etxebizitzaren gaiaren inguruan sortu den espazio berria aurkeztu da: Etxebizitza Bulegoa.

Enekoitz Markos zinegotziak azaldu du zeintzuk izan diren etxebizitzaren inguruan azkenaldian eman diren pausoak eta Etxebizitza Bulegoa sortzeko abiapuntua.

- ✓ Hasteko, Oiartzunen dauden etxe hutsen inguruko errealitatea ezagutu nahi izan da. Horretarako ikerketa bat egin du Gaindegiak, Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren (OHZ) errekargua duten etxebizitzak kontuan hartuz. Emaitza gisa, 357 etxebizitza huts identifikatu dira Oiartzunen: gehienak baserri-eremuan, Elizalden eta Altzibarren daude.
- ✓ Horren aurrean, hurrengo urrats gisa horiek birgaitzeko pausoak ematea izan da. Ildo horretan, Udalak Eusko Jaurlaritzak ematen dituen hainbat laguntza bideratu eta laguntza propioak jarri ditu etxebizitza hutsak merkaturatzeko.
- ✓ Kudeaketa horiek egiteko erreferentziazko gune gisa, Etxebizitza Bulegoa jarri da. Bertan informazioa eta orientabidea eskainiko da etxebizitzaren gaiaren inguruan, bai eskuratu nahi duenari eta baita etxebizitzen jabeei ere. Era berean, aipatutako laguntzak kudeatuko dira eta bitartekaritza lanak gauzatu.

Saioa Etxebeste Etxebizitza Bulegoko teknikariak Bulegoan eskaintzen diren zerbitzuen inguruok zehaztapenak eskaini ditu, eta orain arte izan duen funtzionamendua azaldu du.

- ✓ Etxebizitza Bulegoan Eusko Jaurlaritzaren **ASAP eta BIZIGUNE** programak kudeatuko dira (alokairu mugatuan eskaintzeko etxebizitzak). Bestetik, Udalak laguntza propioa jarri du martxan **etxebizitza hutsak zaharberritu ahal izateko**, horren ondoren ASAP eta Bizigune programetara bideratzeko.
- ✓ Oraingoz, Bulegora **etxebizitza beharrean dauden gazteak gerturatu dira**. Etxebizitzen jabeak gerturatzea zailagoa ari da suertatzen.
- ✓ Emaitza gisa, egun honetan, **abenduaren 16a, lehenengo etxebizitza alokatzeko eskaintza publikatu da ASAP-en**.

Ordutegia: Zita eskatzeko, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Mamut merkatalguneko bulegoak (Oarsoaldea Garapen Agentzia). Astigarragako bidea 2, 2. solairua.

Telefonoa: 943494129 / **E-maila:** etxebizitza@oiartzun.org

3.5. OIARTZUNERAKO AUKERAK

Etxebizitza Bulegoaren aurkezpenaren ondoren, bertaratutakoen ekarpenak, gogoetak eta ideiak jaso dira Oiartzunerako dauden behar eta aukeren inguruan.

Horretarako, Oiartzungo errealitatean dauden aldagai desberdinak islatu dira kartulina bidez, etxebizitza hutsei buruz, gazteen etxebizitza behar eta ezaugarriei buruz eta Etxebizitza Bulegoaren zehaztapenei buruz.

Planteatuta zeuden bi ariketak modu bateratuan egitea adostu da, parte hartzaile kopuruarengatik eta aurreko hausnarketetan hainbat ideia dagoeneko atera direlako.

Hori horrela, Oiartzungo errealitateko aldagaiak kontuan hartuta, bertaratutakoei hausnarketarako hiru puntu aurkeztu dira:

Oiartzungo etxebizitza politikari dagokionez, zein BEHAR, HELBURU eta LAN-ILDO identifikatzen dituzu?

Honako ideiak atera dira bertaratutakoen partetik:

- ✓ **Udala etxebizitza beharren inguruko lanketa egiten aritzea** oso ondo baloratzen da. Inguruko herrietan horrelako lanketak egiten hasita zeuden eta Oiartzunen hutsunea sumatzen zen. Hainbat pauso eman dira eta aurrerantzean ere saiakerak egiten jarraitu behar dela baloratzen da.

- ✓ Udalak martxan jarri dituen edo kudeatzen dituen laguntzak ondo daudela baloratzen da, baina ez dute irtenbiderik eskaintzen diru-sarrera finkorik ez duten pertsonentzat.
  - Hori ikusita, **Etxebizitza Bulegoan bestelako proiektuak kudeatzeko ateak irekitzea** ondo legoke.

- ✓ Bestetik, herrian dauden etxebizitza hutsen kopurua ikusita, garrantzitsua ikusten da **etxejabeak bilatzen jarraitzea eta haiekin lanketa egitea** etxe hutsak birgaitzeko.
  - Etxebizitza Bulegoan eskaintzen diren laguntza eta zerbitzuei begira, Oiartzungo ezaugarri bati arreta berezia jartzea: **hutsak dauden bloke osoak**. Egungo laguntzen unitatea banakako etxeak dira, baina erdigunean kokatzen diren eraikuntza huts osoei begira lanketa berezia egitea ondo legoke.

- ✓ Oiartzungo gazteriari dagokionez, etxebizitza eskuratzeko zailtasunen artean bi zailtasun identifikatzen dira. Batetik, **muga ekonomikoak** daude. Baina, bestetik, diru-sarrerak dauden kasuan ere **ezegonkortasuna** azpimarratzen da. Etxebizitza proiektu batean sartzeko aukera izan arren, egoera horrek egonkor jarraituko duelako ziurtasun ezak gelditzen ditu hainbat gazte.

- ✓ Ildo horri jarraituz, **baliabide ekonomikoetan oinarritzen ez diren proiektuak garatzeko beharra** azpimarratzen da gazteen beharrizanei erantzuteko: aurrez aipatutako bi zailtasunak saihesten dituzten aukerak sor daitezkeelako horrela.
  - Gazte guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten, denbora tarte mugatuko errotazioak edo egonaldiak oinarri dituen programa bat eskain daiteke (adibidez, hiru hileko tarteetan eskaintzea honako etxebizitza aukera).

- ✓ **Gazte asko ez dabiltza etxebizitza bila, nahiz eta beharra izan**. Horretan jokatzen du alferrikakoa izango delako susmoak eta etsi izateak. Bertaratutako batek adierazi duen moduan, inkestatua izan zen eta etxebizitza beharra duela baloratzen duen arren, emaitzetan ez da kontenplatuko bere kasua etxebizitza beharra dutenen artean.

- ✓ Gazteei etxebizitza **eredu, esperientzia eta aukera desberdinen inguruko informazioa eta formazioa falta zaiela** baloratzen da. Etxebizitza politiken inguruan proposamenak egin eta aukera desberdinak sortzeko lehenengo urrats gisa identifikatzen da.







3.6. ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Jardunaldi guztian zehar egindako gogoetak eta aipatutako ideiak kontuan hartuta, hainbat ondorio ateratzen dira Oiartzungo gazteak eta etxebizitza proiektuen inguruan:

- ✓ **Herriko gazteriaren behar eta interesetako bat da** gaur egun etxebizitzarena.
- ✓ **Hala ere, kontzientziazio eta sentsibilizazio falta dago.** Hainbat aktiboki ari dira une honetan etxe bila; baina beste hainbat, behar bezala identifikatzen duten arren, ez dira bila ari, aukerarik ez dutela aurreikusten dutelako.
    - Etxebizitza eredu desberdinen inguruko **informazioa eta formazioa sakontzea** garrantzitsua da, herri mailan sor daitezkeen aukera desberdinak osatzen joateko.
- ✓ Udalak aurrera eraman duen lanketarekin hainbat behar asetzeko aukera ikusten da:
    - Etxebizitza Bulegoarekin erreferentziazko gune bat sortu da herri mailan etxebizitzaren inguruko informazioa, baliabideak eta kudeaketak egitera joateko.
    - Martxan jarri diren laguntzekin, etxebizitzak birgaitzea lortu daiteke eta, horrekin batera, herrian hutsak dauden etxebizitzak alokairuan jartzea ahalbidetu daiteke: eraikina eraberrituta eta prezio mugatuan.
    - Funtsezkoa ikusten da etxejabeekin lanketa egiten jarraitzea, herriko etxebizitza hutsen birgaitzea jarraitzeko. Ildo horretan, Oiartzungo etxebizitzen ezaugarrietara lotutako proiektuak eta laguntzak osatu behar dira (adibidez, bloke huts osoei begirako lanketak)
- ✓ Hala ere, **lanketa hori ez da iristen diru-sarrerak modu egonkorrean ez dituen jendearen beharrak asetzera**. Hor kokatzen dira, hain justu, ikasketak eta lan-munduaren arteko trantsizioan dauden gazte asko.
    - Horien errealitateari ere erantzuteko, etxebizitza proiektuen artean baliabide ekonomikoetan oinarritzen ez diren proiektuak eta egitasmoak ikusten dira aukera posible gisa: adibidez, herrirako zerbitzuen truke etxebizitzak eta bizitzeko espazioak eskaintzea, dirutan ez den beste materialetan "ordaintzea" alokairua…
    - Lanketa horretarako espazio egokia izan daiteke Etxebizitza Bulegoa.
- ✓ Etxebizitzaren gaia **ezin da modu isolatuan ulertu**. Herri baten eta gizarte baten testuinguruan kokatuta, beste hainbat gairekin gurutzatzen da, eta hori kontuan izan behar da egungo etxebizitzaren errealitatea ulertzeko.
    - Era berean, aurrera begirako lanketak egiterakoan zeharlerroan beste hainbat gairekin batera landu daitekeen zerbait da. Horren adibide bat izan daiteke ikerketan eta jardunaldietan presente egon diren belaunaldien arteko egitasmoak garatzeko bidea.

3.7.JARDUNALDIEN AMAIERA

Bertaratutako gazteen gogoetak eta proposamenak jasota, Jardunaldien amaierara heldu da. Horretarako, gelaren atzealdean kokatutako eredu desberdinen azalpenetara gerturatu dira parte hartzaileak. Beraiek irakurri eta beren inguruan dituzten hausnarketa eta ekarpenak idazteko aukera eskaini zaie.

Jarraian jasotzen da eredu bakoitzaren inguruan ikusgai zegoen informazioa:

ETXE HUTSAK ALOKATZEA

Oiartzunen 357 etxebizitza huts daude, gehienak Altzibarren eta Elizalden (%31,6). Gehienak zaharrak dira eta asko egoera kaxkarrean daude

GAZTEEN ETXEBIZITZA BEHARRAK: *Oiartzungo gazteen artean 135 etxe bila dabil. Eskaera asetzeko, 100-110 etxebizitza beharko lirateke.*

ETXEBIZITZA BULEGOAREN ZERBITZUAK: *Irailean ireki da. Etxebizitzaren inguruan informazioa, orientabidea eta laguntzen kudeaketa egiten da: ASAP eta BIZIGUNE programak kudeatuko dira. Etxebizitza hutsak zaharberritu eta alokairura bideratzeko laguntzak jarri ditu martxan Udalak.*

BELAUNALDI ARTEKO PROIEKTUAK

Etxebizitza eta bestelako beharrak asetzeko, belaunaldi desberdinak aintzat hartzen dituzten aukerak biltzen dira: (1) Espazioak eta etxebizitzak konpartitzea: pertsona helduen etxeetako/erresidentzietako logelak eskaini gazteei zerbaiten truke (denbora beraiekin pasa, lanetan lagundu…). (2) Edota etxebizitza trukaketak ahalbidetu, bakoitzaren beharren arabera.

ETXEBIZITZA KOOPERATIBAK

Etxebizitza eskuratzeko formulak dira, etxebizitza beharra duten pertsonak elkartu eta haien artean kudeatzean oinarritzen direnak. Izaera eta erregimen desberdinak har ditzakete: (1) Etxebizitza eraiki, eskuratu eta jabetza pribatu erregimena izan kideek. Oiartzunen historikoki eman da. (2) Edota etxebizitza ez izatea jabego pribatukoa: kooperatibarena izatea, erabilera eskubidearekin.

ETXEBIZITZAK ERABERRITZEAN SORTZEN DIREN AUKERAK

Dagoeneko existitzen diren etxebizitzak edo espazioak eraberritzean sortzen diren etxebizitza proiektu aukerak biltzen dira: (1) Espazio desberdinak eraberritu eta etxebizitza bihurtu daitezke: baserriak zatitu, bajo eta lokalak egokitu. Oiartzunen dagoeneko ematen den aukera da honakoa. (2) Edota eraberritzean, ezaugarri desberdineko etxebizitzak sor daitezke: logela gutxiagokoak, espazio komunetan oinarrituak, kolektibo desberdinen behar eta ezaugarrietara egokituak (norbanakoak, lagun taldeak…).

Tarte horren ondoren, Jardunaldiei amaiera eman zaie bertaratutakoei eskerrak emanez eta luntx batekin.

2016ko abenduaren 16an, arratsaldeko 20:30ean.

MILA ESKER GUZTIOI ZUEN EKARPENENGATIK!

ERANSKINA:GALDE SORTA

GAZTEEN ETXEBIZITZA PREMIA ETA ESKARIARI BURUZKO INKESTA

OIARTZUNEN, 2016

GALDERA-SORTA OROKORRA

Inkestatu zenbakia	
Inkestatzailea	
Data	

Egunon/arratsaldeon.

Oiartzungo Udaletxetik nator. Izan ere, ikerketa bat egiten ari gara Oiartzungo gazteen etxebizitza beharrak eta egoera aztertzeko, horiek hobetzeko asmoz. Hori egin ahal izateko, Oiartzungo 320 etxebizitzetatik pasa behar dugu eta egin dugun zozketan zure etxebizitza irten da aukeratua.

(PERTSONA EGOKIA BERA BADA) **> ELKARRIZKETA EGIN**

(ETXEAN EZ DAGOELA ESATEN BADU) **Zer ordutan etor naiteke berarekin hitz egiteko?**

Ematen diguzun informazioa konfidentziala izango da, eta sekretu estatistikora lotuta dago, eta elkarrizketatuko diren gainontzeko 319 etxebizitzen informazioari numerikoki gehitzeko soilik erabiliko dugu informazio hori.

1. Sexua

Emakumezkoa	1□
Gizonezkoa	2□

2. Adina [ ]

3. Auzoa

Elizalde – Erdialdea	**1**□
Altzibar	**2**□
Ugaldetxo	**3**□
Arragua	**4**□
Karrika	**5**□
Ergoien	**6**□
Gurutze	**7**□
Iturriotz	**8**□
Beste	**9**□
Erantzunik ez	**99**□

4. Hasteko, esango didazu, mesedez, zenbat lagun bizi zareten etxean?

[ ]

5. Esadazu orain mesedez, norekin bizi zaren. Gurasoak, bikotekidea, lagunak,...

Gurasoekin (anai-arrebak, aitona-amonak, etab… ere egon daitezke)	**1**□
Bakarrik	**2**□
Bikotekidearekin bakarrik	**3**□
Bikotekidea eta seme-alabekin	**4**□
Bikotea, seme-alabak, gurasoak, etab	**5**□
Lagunekin	**6**□
Beste egoera bat	**7**□
Ez daki	**8**□
Ez du erantzuten	**9**□

EMANTZIPATUTAKO GAZTEEI GALDETEGIA

6. Zenbat urterekin utzi zenion gurasoen etxean bizitzeari?
(Kanpoan ikasten pasatako urteek ez dute kontatzen,ez bada jadanik bere kabuz bizi zela ekonomikoki ere)

7. Independizatu zinenean, nola egin zenuen?

Etxea erosi nuen (prezio librean)	1□
Etxea erosi nuen (Babes Ofizialekoa)	2□
Etxea alokairuan hartu nuen	3□
Etxea alokairu sozialean hartu nuen	4□
Etxea okupatu nuen	5□
Beste aukeraren bat	6□

ZEIN? _____

Ez dakit	8□
Erantzunik ez	9□

8. Eta gaur egun, etxebizitza horren jabeak zarete, errentan zaudete ala beste egoeraren batean?

Jabetzan	1□
Errentan	2□
Emandakoa (herentzian adb)	3□
Okupa	4□
Bestelako egoera bat	5□

Zein?_____

Ez daki	8□
Ez du erantzuten	9□

9. Noiztik bizi zarete etxebizitza honetan? Duela zenbat urte?

30 urte baino gehiago	1□
20-29 urte	2□
10-19 urte	3□
5-9 urte	4□
3-4 urte	5□
2 edo gutxiago	6□
Ez daki	8□
Ez du erantzuten	9□

10. Esaidazu, ondorengo aspektuen arabera, bizi zareten etxebizitzarekin oso gustura, nahiko gustura, ez oso gustura edo batere gustura ez zaudeten

	Oso gustura	Nahiko gustura	Ez oso gustura	Batere ez	ED	EE
Prezioa (alokairua edo hipoteka)	1□	2□	3□	4□	8□	9□
Kokalekua edo auzoa	1□	2□	3□	4□	8□	9□
Etxea bera (tamaina, egoera orokorra,...)	1□	2□	3□	4□	8□	9□

11. (EROSI ZUTENEI) Etxebizitza erosi zenuten garaian, zergatik nahiago izan zenuten etxebizitza erosi alokairuzko etxebizitza batean sartu baino? (IREKIA)

_____

_____

12. (ERRENTAN DAUDENEI) Esadazu, mesedez, ondorengo arrazoiak zuen kasuan zerikusi handia, ertaina, txikia edo bat ere eraginik ez duten izan errentan bizitzearekin.

	Handia	Ertaina	Txikia	Bat ere ez	ED	EE
Ez zeukan etxebizitza erosteko behar beste diru	1□	2□	3□	4□	8□	9□
Ez zuen kreditu bat ordaintzeko hipotekatu nahi	1□	2□	3□	4□	8□	9□
Errentak mugikortasun handiagoa eskaintzen du	1□	2□	3□	4□	8□	9□
Behin behineko aukera izan zen, erosteko ahalmena izan bitartean	1□	2□	3□	4□	8□	9□
Etxebizitzaren zein errentaren baldintzak aukera ona ziren (errenta zaharrak...)	1□	2□	3□	4□	8□	9□

13. A (ERRENTAN BIZI DIRENEI) Errentan bizitzen jarraitu nahi duzu(e) edo ahal bazenute, nahiagoko zenuten etxebizitza erostea?

Errentan jarraitu	**1□**
Erosi	**2□**
Ez daki	**8□**
Ez du erantzuten	**9□**

14. (ERRENTAN BIZI ETA EROSI NAHI DUTENEI) Zein baldintza bete beharko lirateke jabetza alboratu eta errentan jarraitzeko? (Irekia)

_____

_____

15. Badaude herritarrak arrazoi ezberdinengatik (bikotearengandik banandu direlako, lana galdu dutelako, edo bestelakoak) gurasoen etxera itzuli behar izan dutenak. Uste duzu hemendik urtebetera zure familiaren edo gurasoen etxera bizitzera bueltatuko zarela?

Segur aski bai, aukera asko daude	**1□**
Agian bai, nahikoa aukera daude	**2□**
Ez dut uste, aukera gutxi daude	**3□**
Seguruenik ez, ez dago batere aukerarik	**4□**
Ez daki	**8□**
Ez du erantzuten	**9□**

16. Eta zuk zenbateraino nahiko zenuke zure familia edo gurasoen etxera bizitzera bueltatu (asko, nahikoa, gutxi, batere ez)

Asko	**1**□
Nahikoa	**2**□
Gutxi	**3**□
Batere ez	**4**□
Ez daki	**8**□
Ez du erantzuten	**9**□

Hasieran esan dizugu, herritar gazteen etxebizitza beharrak zeintzuk eta zenbat diren jakiteko eta laguntzen saiatzeko egiten duela inkesta hau Oiartzungo Udalak. Ondoren horri buruz galdetuko dizut.

Badago etxebizitzaz ALDATZEKO BEHARRA duen jendea, familia handitu edo txikitu delako, oraingo etxean gustura ez daudelako, osasun arrazoiengatik, edo etxebizitza egokiturik ez dagoelako zahartu den familiako kideren batentzako edo istripu bat izan duen beste batentzako…

17. Zuen kasuan, familia osoaren egoera kontuan hartuta, etxebizitza aldatzeko beharra daukazue ala ez?

Bai	**1**□
Ez	**2**□
Ez daki	**8**□
Ez du erantzuten	**9**□

EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK + ALDAKETA BEHARREAN DAUDENEI GALDETEGIA

18. Kalifika ezazu etxebizitzaz aldatzeko duzun beharra:

Behar handia	**1**□
Nahiko beharra	**2**□
Behar ertaina	**3**□
Behar txikia	**4**□
Ez daki	**8**□
Ez du erantzuten	**9**□

19. Zenbat denbora daramazu behar egoera honetan?

Urte 1 baino gutxiago	**1**□
1 eta 2 urte bitartean	**2**□
2 eta 4 urte bitartean	**3**□
4 urte baino gehiago	**4**□
Ez daki	**8**□
Ez du erantzuten	**9**□

20. Aldatuko zinateketen etxebizitza hori bilatzen zabiltzate jadanik?

Bilatzen dabiltza	**1**□
Ez dabiltza bilatzen	**2**□
Ez daki	**8**□
Ez du erantzuten	**9**□

21. Aldaketa beharraren balizko arrazoi hauetatik zein da garrantzitsuena zuen kasuan? Eta zein da bigarrena garrantzian? (IRAKURRI)

	1go arrazoia	2.arrazoia
Prezio altuegia	1□	1□
Tamaina ez egokia (etxebizitza txiki gelditu zaie)	2□	2□
Tamaina ez egokia (etxebizitza handi gelditu zaie)	3□	3□
Bizitzeko baldintza txarrak	4□	4□
Kokapen desegokia (auzoa ez da gustokoa, ez dauka zerbitzurik, urrundua, konfliktiboa...)	5□	5□
Etxebizitza jabetzan izan nahi dute	6□	6□
Beste arrazoiren bat	7□	7□
Ez daki	8□	8□
Ez du erantzuten	9□	9□

22. Zuen beharrak kontutan hartuta, zenbat metro koadroko etxebizitza beharko zenuten?

100 m2 baino gehiago	**1**☐
91 eta 100 m2 bitartean	**2**☐
76 eta 90 m2 bitartean	**3**☐
61 eta 75 m2 bitartean	**4**☐
41 eta 60 m2 bitartean	**5**☐
40 m2 edo gutxiago	**6**☐
Ez daki	**8**☐
Ez du erantzuten	**9**☐

23. Eta bainugelaz eta sukaldeaz aparte, zenbat gela beharko zenituzkete gutxienez?

☐☐

24. n beharretara egokitzen den etxebizitza lortzeko (zuek behar duzuen prezio zein baldintzetara egokitzen dena) Oiartzundik alde egiteko prest egongo zinatekete?

Eta Elizalde-Erdialdera joateko prest?
Eta Altzibarrera joateko prest?
Eta Ugaldetxora joateko prest?
Eta Arraguara joateko prest?
Eta Karrikara joateko prest?
Eta Ergoienera joateko prest?
Eta Gurutzera joateko prest?
Eta Iturriotzera joateko prest?

	Bai, baietz uste dut	Ez, ez dut uste	ED	EE
Oiartzundik kanpora	1☐	2☐	8☐	9☐
Elizalde-Erdialdera	1☐	2☐	8☐	9☐
Altzibarrera	1☐	2☐	8☐	9☐
Ugaldetxora	1☐	2☐	8☐	9☐
Arraguara	1☐	2☐	8☐	9☐
Karrikara	1☐	2☐	8☐	9☐
Ergoienera	1☐	2☐	8☐	9☐
Gurutzera	1☐	2☐	8☐	9☐
Iturriotzera	1☐	2☐	8☐	9☐

25. Zuen ahalmen ekonomikoa kontutan harturik, behar duzuen etxebizitza hori jabetzan edo alokairuan hartzea pentsatzen ari zarete?

Jabetzan	**1**☐
Alokairuan	**2**☐
Berdin die	**3**☐
Ez daki	**8**☐
Ez du erantzuten	**9**☐

26. (JABETZAN NAHI DUTENEI) Zein izango litzateke ordain dezakezuen etxebizitza baten salneurririk altuena etxebizitza horren erosketari aurre egin ahal izateko?

(EGOKITU, EZ BADU ESATEN IRAKURRI)

Pezetetan	**Eurotan**	
60 milioi pezeta edo gehiago	360.000 euro baino gehiago	1☐
55 eta 59,9 milioi bitartean	330.000 eta 359.999 euro bitartean	2☐
50 eta 54,9 milioi bitartean	300.000 eta 329.999 euro bitartean	3☐
45 eta 49,9 milioi bitartean	270.000 eta 299.999 euro bitartean	4☐
40 eta 44,9 milioi bitartean	240.000 eta 269.999 euro bitartean	5☐
35 eta 39,9 milioi bitartean	210.000 eta 239.999 euro bitartean	6☐
30 eta 34,9 milioi bitartean	180.000 eta 209.999 euro bitartean	7☐
25 eta 29,9 milioi bitartean	150.000 eta 179.999 euro bitartean	8☐
20 eta 24,9 milioi bitartean	120.000 eta 149.999 euro bitartean	9☐
20 milioi baino gutxiago	120.000 euro baino gutxiago	10☐
Ez daki		88☐
Erantzunik ez		99☐

27. Zenbat diru uste duzue hilabetean bideratu dezakezuela batez besteko etxebizitza baten erosketarako edo alokairurako?

(EZ BADUTE ESATEN, IRAKURRI)

Pezetetan	**Eurotan**	
25.000 baino gutxiago	150 euro baino gutxiago	13o
25.000 eta 49.999 bitartean	150 eta 299 euro bitartean	12o
50.000 eta 74.999 bitartean	300 eta 449 euro bitartean	11o
75.000 eta 99.999 bitartean	450 eta 599 euro bitartean	10o
100.000 eta 124.999 bitartean	600 eta 749 euro bitartean	9o
125.000 eta 149.999 bitartean	750 eta 899 euro bitartean	8o
150.000 eta 199.999 bitartean	900 eta 1.199 euro bitartean	7o
200.000 eta 249.999 bitartean	1.200 eta 1.499 euro bitartean	6o
250.000 eta 299.999 bitartean	1.500 eta 1.799 euro bitartean	5o
300.000 eta 349.999 bitartean	1.800 eta 2.099 euro bitartean	4o
350.000 eta 399.999 bitartean	2.100 eta 2.399 euro bitartean	3o
400.000 eta 499.999 bitartean	2.400 eta 2.999 euro bitartean	2o
500.000 pezeta edo gehiago	3.000 euro baino gehiago	1o
Ez daki		88o
Erantzunik ez		99o

28. Esadazu faborez, aldatuko zinateketen etxebizitza horren finantzaketan beraien diru sarrerekin parte hartuko luketen familiako pertsonen kopurua:

EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEI GALDETEGIA

29. Orokorrean, bizi zaren etxebizitzan oso gustura, nahiko gustura, ez oso gustura edo batere gustura ez zaudetela esango zenuke?

Oso	1□
Nahiko	2□
Ez oso gustura	3□
Batere ez	4□
Ez daki	8□
Ez du erantzuten	9□

30. Familia batzuetan seme-alabak beren etxebizitza ESKURATU BEHARREAN aurkitzen dira, bikotearekin bizi nahi dutelako edo haien kaxara bizi nahi dutelako. Zure egoera hori al da?

Bai	1□
Ez **(48. GALDERARA JO)**	2□
Ez daki	8□
Ez du erantzuten	9□

31. Kalifika ezazu lehen etxebizitza lortzeko duzun beharra:

Behar handia	1□
Nahiko beharra	2□
Behar ertaina	3□
Behar txikia	4□
Ez daki	8□
Ez du erantzuten	9□

32. Zenbat denbora daramazu behar egoera honetan?

Urte 1 baino gutxiago	1□
1 eta 2 urte bitartean	2□
2 eta 4 urte bitartean	3□
4 urte baino gehiago	4□
Ez daki	8□
Ez du erantzuten	9□

33. Eskuratu nahi duzun etxebizitza hori bilatzen zabiltza(te) jadanik?

Bilatzen dabiltza	1□
Ez dabiltza bilatzen	2□
Ez daki	8□
Ez du erantzuten	9□

34. (BEHAR HANDIA EDO ERTAINA ESAN BADUZU eta ETXEAREN BILA ARI BAZARA) Zein dira oraindik zure kabuz bizitzera joan ez izateko arrazoi nagusiak (gehienez bi markatu):

	Arrazoi nagusia	Bigarren arrazoia
Alokairuaren prezioak altuegiak dira	1☐	1☐
Alokairuko etxeak egoera txarrean daude	2☐	2☐
Salgai dauden etxeen prezioak altuegiak dira	3☐	3☐
Alokairuan dauden etxeen eskaintza txikia da	4☐	4☐
Alokairuan dauden etxeen tamaina handiegia da	5☐	5☐
Ez dut/ditut pertsona egokia(k) topatu etxetik joateko	6☐	6☐
Egoera ekonomiko-laboral inestableak beldurra ematen dit	7☐	7☐
Beste arrazoiren bat. ZEIN?_____	8☐	8☐
Ez daki	88☐	88☐
Erantzunik ez	99☐	99☐

35. Uste duzu hemendik urtebetera zure kontura bizitzera joango zarela?

Segur aski bai, aukera asko daude	1☐
Agian bai, nahikoa aukera daude	2☐
Ez dut uste, aukera gutxi daude	3☐
Seguruenik ez, ez dago batere aukerarik	4☐
Ez daki	8☐
Ez du erantzuten	9☐

36. Eta zuk zenbateraino nahiko zenuke zure kontura bizitzera joan

Asko	1☐
Nahikoa	2☐
Gutxi	3☐
Batere ez	4☐
Ez daki	8☐
Ez du erantzuten	9☐

37. Zein da etxebizitza eskuratu behar izanaren arrazoi nagusia? Eta zein da bigarrena garrantzian? (IRAKURRI)

	Lehena	Bigarrena
Bikotean bizitzea	1☐	1☐
Familiatik emantzipatzea bere kabuz bizitzeko	2☐	2☐
Lana dela eta lekualdatu behar duelako	3☐	3☐
Banatzea (separazioa)	4☐	4☐
Beste batzuk	5☐	5☐

Zeintzuk?_____

Ez daki	8☐	8☐
Ez du erantzuten	9☐	9☐

38. A Konkretuki, zure lehenengo etxebizitza lortuko bazenu, zenbat pertsona joango zinatekete hara bizitzera? Bakarrik, zure bikotearekin, lagun batzuekin... nola joango zinateke?

Bera bakarrik joango litzateke	**1**□
Bere bikotearekin joango litzateke	**2**□
Lagun talde batekin joango litzateke	**3**□
Beste erantzunen bat	**4**□

Jaso_____

Ez daki	**8**□
Ez du erantzuten	**9**□

38.B- Beraz, zu kontatuta guztira? [ ]

39. Zuen beharrak kontutan hartuta, zenbat metro koadroko etxebizitza beharko zenuten?

100 m2 baino gehiago	**1**□
91 eta 100 m2 bitartean	**2**□
76 eta 90 m2 bitartean	**3**□
61 eta 75 m2 bitartean	**4**□
41 eta 60 m2 bitartean	**5**□
40 m2 edo gutxiago	**6**□
Ez daki	**8**□
Ez du erantzuten	**9**□

40. Eta bainugelaz eta sukaldeaz aparte, zenbat gela beharko zenituzkete gutxienez?

[ ][ ]

41. Zuen beharretara egokitzen den etxebizitza lortzeko (zuek behar duzuen prezio zein baldintzetara egokitzen dena) Oiartzundik alde egiteko prest egongo zinatekete?
Eta Elizalde-Erdialdera joateko prest?
Eta Altzibarrera joateko prest?
Eta Ugaldetxora joateko prest?
Eta Arraguara joateko prest?
Eta Karrikara joateko prest?
Eta Ergoienera joateko prest?
Eta Gurutzera joateko prest?
Eta Iturriotzera joateko prest?

	Bai, baietz uste dut	Ez, ez dut uste	ED	EE
Oiartzundik kanpora	1□	2□	8□	9□
Elizalde-Erdialdera	1□	2□	8□	9□
Altzibarrera	1□	2□	8□	9□
Ugaldetxora	1□	2□	8□	9□
Arraguara	1□	2□	8□	9□
Karrikara	1□	2□	8□	9□
Ergoienera	1□	2□	8□	9□
Gurutzera	1□	2□	8□	9□
Iturriotzera	1□	2□	8□	9□

42. A- Zuen ahalmen ekonomikoa kontutan harturik, behar duzuen etxebizitza hori jabetzan edo alokairuan hartzea pentsatzen ari zarete?

Jabetzan	1☐
Alokairuan	2☐
Berdin die	3☐
Beste modu bat	4☐
Ez daki	8☐
Ez du erantzuten	9☐

43. (Jabetzan nahiago dutenei) Zein baldintza bete beharko lirateke jabetza alboratu eta errenta hartzeko? (Irekia)

_____

_____

_____

44. (ERRENTA NAHIAGO DAUDENEI) Esadazu, mesedez, ondorengo arrazoiak zure kasuan zerikusi handia, ertaina, txikia edo bat ere eraginik ez duten izan errentan bizi nahi izatearekin.

	Handia	Ertaina	Txikia	Bat ere ez	ED	EE
Ez daukat etxebizitza erosteko behar beste diru	1☐	2☐	3☐	4☐	8☐	9☐
Ez dut kreditu bat ordaintzeko hipotekatu nahi	1☐	2☐	3☐	4☐	8☐	9☐
Errentak mugikortasun handiagoa eskaintzen du	1☐	2☐	3☐	4☐	8☐	9☐
Behin behineko aukera izango da, erosteko ahalmena izan bitartean	1☐	2☐	3☐	4☐	8☐	9☐
Etxebizitzaren zein errentaren baldintzak aukera ona dira (errenta zaharrak...)	1☐	2☐	3☐	4☐	8☐	9☐

45. (JABETZAN NAHI DUTENEI) Zein izango litzateke ordain dezakezuen etxebizitza baten salneurririk altuena etxebizitza horren erosketari aurre egin ahal izateko? (EGOKITU, EZ BADU ESATEN IRAKURRI)

(EUROTAN EDO PEZETETAN IRAKURRI, EZ BIETAN)

Pezetetan	**Eurotan**	
60 milioi pezeta edo gehiago	360.000 euro baino gehiago	1☐
55 eta 59,9 milioi bitartean	330.000 eta 359.999 euro bitartean	2☐
50 eta 54,9 milioi bitartean	300.000 eta 329.999 euro bitartean	3☐
45 eta 49,9 milioi bitartean	270.000 eta 299.999 euro bitartean	4☐
40 eta 44,9 milioi bitartean	240.000 eta 269.999 euro bitartean	5☐
35 eta 39,9 milioi bitartean	210.000 eta 239.999 euro bitartean	6☐
30 eta 34,9 milioi bitartean	180.000 eta 209.999 euro bitartean	7☐
25 eta 29,9 milioi bitartean	150.000 eta 179.999 euro bitartean	8☐
20 eta 24,9 milioi bitartean	120.000 eta 149.999 euro bitartean	9☐
20 milioi baino gutxiago	120.000 euro baino gutxiago	10☐
Ez daki		88☐
Erantzunik ez		99☐

46. Zenbat diru uste duzue hilabetean bideratu dezakezuela batez besteko etxebizitza baten erosketarako edo alokairurako? (EGOKITU; EZ BADUTE ESATEN, IRAKURRI)

Pezetetan	**Eurotan**	
25.000 baino gutxiago	150 euro baino gutxiago	13o
25.000 eta 49.999 bitartean	150 eta 299 euro bitartean	12o
50.000 eta 74.999 bitartean	300 eta 449 euro bitartean	11o
75.000 eta 99.999 bitartean	450 eta 599 euro bitartean	10o
100.000 eta 124.999 bitartean	600 eta 749 euro bitartean	9o
125.000 eta 149.999 bitartean	750 eta 899 euro bitartean	8o
150.000 eta 199.999 bitartean	900 eta 1.199 euro bitartean	7o
200.000 eta 249.999 bitartean	1.200 eta 1.499 euro bitartean	6o
250.000 eta 299.999 bitartean	1.500 eta 1.799 euro bitartean	5o
300.000 eta 349.999 bitartean	1.800 eta 2.099 euro bitartean	4o
350.000 eta 399.999 bitartean	2.100 eta 2.399 euro bitartean	3o
400.000 eta 499.999 bitartean	2.400 eta 2.999 euro bitartean	2o
500.000 pezeta edo gehiago	3.000 euro baino gehiago	1o
Ez daki		88o
Erantzunik ez		99o

47. Esadazu faborez, lehen etxebizitza horren finantzaketan beraien diru-sarrerekin parte hartuko luketen pertsonen kopurua, hau da, zuk bakarrik, zuk eta zure bikoteak, zuk eta zure familiako norbaitek edo zuk eta zurekin bizitzera joango den lagunen batek... edo zenbatek ordainduko zenuketen.

GALDETEGI OROKORRA

Orain, zuen etxeko behar ezberdinetaz aparte, orokorrean etxebizitzaren inguruko galdera batzuk egingo dizkizut.

48. Gaur egun Oiartzungo herriak dituen arazoen artean, etxebizitzarenak zein toki betetzen du zure ustez? Arazo larriena da, arazo larrienetako bat da edo ez da arazo larrienetako bat?

Arazo larriena da	1□
Arazo larrienetako bat da	2□
Ez da arazo larrienetako bat	3□
Ez da arazo bat	4□
Ez daki	8□
Ez du erantzuten	9□

49. Oiartzunen, gazteek etxebizitza bat eskuratzea (erosita edo alokairuan) oso zaila, nahiko zaila, nahiko erraza edo oso erraza da?

Oso zaila da	1□
Nahiko zaila da	2□
Nahiko erraza da	3□
Oso erraza da	4□
Ez daki	8□
Ez du erantzuten	9□

50. Oiartzungo Etxebizitza Bulegoa ezagutzen al duzu?

Bai, ezagutzen du	1□
Zerbait entzun du	2□
Ez du ezagutzen	3□
Ez daki	8□
Ez du erantzuten	9□

51. (Ezagutzen dutenei edo zerbait entzun dutenei) Inoiz gerturatu al zara Etxebizitza bulegora?

Bai	1□
Ez	2□

52. Etxebizitza Bulegoaren inguruko informazio gehiago eduki nahiko al zenuke?

Bai	1☐
Ez	2☐
Ez daki	8☐
Ez du erantzuten	9☐

53. Gaiez aldatuz, herrian hutsik dauden etxebizitzak egotea arazo bat dela iruditzen zaizu?

Bai, arazo bat da	1☐
Ez, ez da arazo bat	2☐
Ez daki	8☐
Ez du erantzuten	9☐

54. Jarraian, administrazioak etxebizitzaren inguruan abian jar ditzakeen zenbait neurri aipatuko dizkizut, gazteak etxebizitza eskuratzea errazteko izan daitezkeenak. Esadazu mesedez, horietako bakoitzak Oiartzunen funtzionatuko lukeen ala ez.

	Ziur funtzionatuko lukeela	Zalantza	Ziur ez lukeela funtzionatuko	ED	EE
Etxebizitza hutsak merkatura atera daitezen bultzatzea etxejabeei laguntzak emanez (hobarien bidez, erreformak egiteko dirulaguntzak emanez,…)	1☐	2☐	3☐	8☐	9☐
Etxebizitza hutsak merkatura atera daitezen, etxea hutsa duten jabeak 'estutzea' zerga bidez	1☐	2☐	3☐	8☐	9☐
Herritarrei Babes Ofizialeko etxebizitzak eskaintzea, salmentan	1☐	2☐	3☐	8☐	9☐
Herritarrei Babes Ofizialeko etxebizitzak eskaintzea, alokairuan	1☐	2☐	3☐	8☐	9☐
Eraikinen beheko solairuetako zenbait bajera etxebizitza gisa erabil ahal daitezen bultzatzea	1☐	2☐	3☐	8☐	9☐
Herritarren artean etxeak modu kooperatiboan eraikitzeko laguntzak ematea	1☐	2☐	3☐	8☐	9☐
Gazteei emantzipazio Errenta (hilabetero laguntza ekonomikoa) ematea alokairurako	1☐	2☐	3☐	8☐	9☐

55. Orain neurri berberak aipatuko dizkizut eta esan, horietako bakoitza zuretzat pertsonalki baliagarria den edo soluzio bat den.

	Soluzio bat da	Zalantza	Ez da soluzio bat	ED	EE
Etxebizitza hutsak merkatura atera daitezen bultzatzea etxejabeei laguntzak emanez (hobarien bidez, erreformak egiteko dirulaguntzak emanez,…)	1☐	2☐	3☐	8☐	9☐
Etxebizitza hutsak merkatura atera daitezen, etxea hutsa duten jabeak 'estutzea' zerga bidez	1☐	2☐	3☐	8☐	9☐
Herritarrei Babes Ofizialeko etxebizitzak eskaintzea, salmentan	1☐	2☐	3☐	8☐	9☐
Herritarrei Babes Ofizialeko etxebizitzak eskaintzea, alokairuan	1☐	2☐	3☐	8☐	9☐
Eraikinen beheko solairuetako zenbait bajera etxebizitza gisa erabil ahal daitezen bultzatzea	1☐	2☐	3☐	8☐	9☐
Herritarren artean etxeak modu kooperatiboan eraikitzeko laguntzak ematea	1☐	2☐	3☐	8☐	9☐
Gazteei emantzipazio Errenta (hilabetero laguntza ekonomikoa) ematea alokairurako	1☐	2☐	3☐	8☐	9☐

56. Bukatzen ari gara. Azkeneko galdera egingo dizut. Zuen familiaren ahalmen ekonomikoari erreparatuz, esango zeniguke, mesedez, Oiartzungo familien batez besteko maila ekonomikoaren gainetik edo azpitik zaudeten?

Batez bestekoaren gainetik	**1**□
Batez bestekoaren inguruan	**2**□
Batez bestekoaren azpitik	**3**□
Ez daki	**8**□
Ez du erantzuten	**9**□

57. (BATEZ BESTEKOAREN INGURUAN ESAN DUTENEI) Batez bestekoaren inguruan egonda ere, zuen ahalmen ekonomikoa pixka bat gainetik edo azpitik dagoela esango zenuke?

Batez bestekoa baino pixka bat gorago	**1**□
Batez bestekoan (EZ IRAKURRI)	**2**□
Batez bestekoa baino pixka bat beherago	**3**□
Ez daki	**8**□
Ez du erantzuten	**9**□

58. Non jaio zinen?

Oiartzunen	1□
Gipuzkoako beste udalerri batean	2□
Euskal Herriko beste herrialde batean	3□
Espainiako Estatuan	4□
Beste Europa	5□
Amerikan	6□
Afrikan	7□
Asian	8□
Ozeanian	9□

59. Gaur egun bukatuta dituzun ikasketak

Ikasketarik ez edo oinarrizko ikasketak (DBHra arte)	**1**□
Erdi mailako ikasketak (Batxilergoa, Lanbide Heziketa)	**2**□
Maila altuko ikasketak (Diplomaturatik gorakoak)	**3**□
Besterik	**4**□

60. Lan egoera

Lanean	**1**□
Langabezian	**2**□
Ikasle	**3**□
Langilea + ikaslea	**4**□
Besterik	**5**□

61. Eta euskaraz, ulertu eta hitz egiten duzu ondo, hitz egin nekez baina ulertzen duzu edo ez duzu ulertzen?

Ondo ulertu eta hitz egin	**1**□
Hitz egin nekez baina ulertu ondo	**2**□
Ez hitz egin ezta ulertu ere	**3**□

62. Gazteek beren kabuz bizitzera joateko soluzio gehiago ere badaude seguru. Ezagutzen al duzu besterik? Badaukazu proposamenik? Beste herri batean ikusi duzulako, komunikabideetan ikusi duzulako,...

_____

_____

_____

Aipatutako gaien inguruan zerbait erantsi nahi baduzu, oraintxe duzu aukera (IREKIA)

_____

_____

Emaila: _____

Bukatu dugu. Mila esker zure laguntzagatik.

[a]aztiker
soziologia ikergunea

AZTIKER KOOP. ELK. TXIKIA
Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien eorbidea z/g
20140 Andoain (Gipuzkoa)
943593006
www.aztiker.eus – idazkaritza@aztiker.eus